

2018-2020 ALDIAN HERRITARTASUNAREN, KULTURARTEKOTASUNAREN ETA IMMIGRAZIOAREN ESPARRUAN JARDUTEKO V. PLANAREN EBALUAZIOA

2021EKO AZAROA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**

**DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES**

1.	SARRERA	3
2.	EBALUAZIOAREN METODOLOGIA.....	7
3.	2018-2020 ALDIAN HERRITARTASUNAREN, KULTURARTEKOTASUNAREN ETA IMMIGRAZIOAREN ESPARRUAN JARDUTEKO V. PLANAREN GARAPENA.	8
3.1.	EKINTZAK	10
3.2.	AURREKONTUAREN BETEARAZPENA	126
3.3.	DIRULAGUNTZA-LERROAK	131
3.4.	SAILKAPENA	133
4.	ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	138

1. SARRERA

2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren sarrerari jarraikiz, aurreko mendearen amaieratik eta mende honen hasieratik, ezohiko fenomeno baten lekukoak izaten ari gara Euskadin, garai modernootan: atzeritar jatorriko pertsonak iristen ari dira, batzuk hurbileko leku batzuetatik, baina beste asko, gehienak oso urrunetik. Eta fenomeno sozial honek betirako aldatu du gure eguneroko errealitatea.

Gizarte moduan, bi aurrekari genituen: XIX. mendearen amaieran, euskal gizartearen lehen industrializazioarekin, Espainiatik iritsi zitzaigun immigrazioa; eta geroago, aurreko mendearen erdialdera, aurrekoa bezala beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsitako immigrazioa.

Garapen ekonomiko horren ondorioz, bizimodu hobe baten eta bizi-proiektu itzaropentsu baten bila migratzen duten pertsonak erakartzen jarraitzen dugu. Nahiz eta egia den gure lurraldearen kokapenaren ondorioz iragaitzazko egoeran eta beste gune europar batzuetarako bidean dauden biztanle migratzaile ugari daudela, itxura guztien arabera atzerriko immigrazioaren zati handiena geratzeko iritsi da eta iritsiko da EAEra. Hori dela eta, geroz eta handiagoa den aniztasun kulturala (jatorria, hizkuntza, ohiturak, sozializazioa, erlijioa, mundu-ikuskera eta abar), egoeraren araberrako fenomeno bat izatetik urrun, egiturazko gako bat da, euskal gizartearen oraina eta etorkizuna definitzen ari dena. Arrazoi horien ondorioz, ezinbestekoa da immigrazioa epe labur eta ertainean saihestu ezin den egiturazko gertaera moduan ulertzea, eta horixe da, hain zuzen ere, oinarritzko aurrebaldintza, kulturalki askotarikoak diren kolektiboak kudeatzeko eta gizarteratzeko ibilbide luzeko estrategiak egiteko.

Egiturazko gertaera berri honen ondorioz, beharrezkoa da gizarte-inklusioko eta harrerarako oinarritzkoenak eta funtsezkoenak diren alderdiak kudeatzea –kudeaketa materiala–, bai eta geroz eta handiagoa den aniztasun soziokulturala kudeatzea ere, kulturarteko bizikidetzaren arloan.

2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planak, 2017. urtearen amaieran eta 2018.aren hasieran eginak, honako helburu hau zeukan: Eusko Jaurlaritzak immigrazioaren arloan esku hartzeko estrategia eguneratzea, zerbitzuak eta tresnak berrantolatuz eta aniztasun soziokultural gero eta handiago baten kudeaketan sakonduz. Izan ere, geroz eta beharrezkoagoak dira soziokulturalki askotarikoak diren pertsonak eta kolektiboak hartzeko eta gizarteratzeko prozesuan herritarrei orientazioa emango dieten gizarte-eredu publikoak.

Eusko Jaurlaritzak hainbat plan eta estrategia landu ditu mende honen hasieratik, migrazio-prozesuak eta euskal gizartearen aniztasun soziokultural gero eta handiagoa kudeatzeko ekintzak sistematizatu, antolatu, koordinatu eta gidatzeko. Luzamendurik gabe, horietako bakoitzaren aipamen labur bat egingo dugu.

Lehenik eta behin, *Immigrazioari buruzko I. Euskal Plana 2003-2005* delakoa, Eusko Jaurlaritzako orduko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egindakoa, Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren barruan, bere Immigrazio Zuzendaritzan, batez ere atzeritik etorritako pertsonen bolumen esanguratsuen aurrean harrera-premiei erantzuteko, pertsona horiek askotan egoera administratibo, sozial eta pertsonal prekarioetan zeudela kontuan hartuta.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzak immigrazio atzerritarraren fenomenoari emandako erantzuna egokitu behar izan zen *2007-2009ko Immigrazioari buruzko II. Euskal Planean*. Plan hori ere Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta haren Immigrazio Zuzendaritzak egin zuten, atzeritik etorritako pertsonen bolumenak urtez urte etengabe hazten ari ziren garaian, gure ekonomiak markatzen zuen erritmoan, hots, hazkunde iraunkor betean.

Gure ongizate-estatuan eragin handia izan zuen krisialdi ekonomikoaren garaian, beste plan bat egin behar izan genuen, etapa horretako eskakizunekin bat zetorrena: *2011-2013ko Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Plana*, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak egina.

Plan berri horrek, immigrazioa fenomeno sozial gisa alde batera utzi gabe (bizilagun berrien etorrera euskal gizartera) eta pertsona guztien eskubide eta betebeharrei uko egin gabe horizonte gisa (herritartasuna), gure erkidegoaren artean zenbait urte, batzuetan hamarkadak ere, zeramatzaten pertsona guztiengan jartzen zuen arreta, hots, gure auzo eta herrietan bizi ziren, Euskadin jaiotako seme-alabak zituzten, espainiar nazionalitatea gero eta maizago eskuratzen zuten, eta, azken batean, erkidegoko gainerako biztanleriarekin batera euskal gizartearen proiektuaren parte ziren horiengan (bizikidetzan). Plan hura kulturartekotasuna lantzen hasi zen.

Geroago, *Immigrazioarako Euskal Estrategia* izenarekin jaiotako IV. Planak, oraindik ere krisi ekonomikoaren testuinguruan eta gure ongizate-estatutuan egindakoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta haren Familia Politika eta Erkidego Garapeneko Zuzendaritzaren eskutik, gehiago jorratu zuen kulturartekotasunean oinarritutako aniztasunaren kudeaketa, atzeritar jatorriko biztanleria immigrantearen harrera baino. Ez azken hori beharrezkoa ez delako, oso garrantzitsua baita (nahiz eta immigrazio-fluxuen murrizketaren zioz arinduta egon), baizik eta dagoeneko hainbat mekanismo daudelako horri era egokian aurre egiteko, hobetu daitezkeen mekanismoak izan arren, eta gure etorkizunaren benetako erronkak lotura zuzena daukalako gizartea osatzen duten pertsona guztien (beren jatorria edozein izanda ere) eskubideak eta betebeharrak bermatu eta exijitzen dituen gizarte bat eraikitzeak daukagun gaitasunarekin.

Azkenik, *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana 2018-2020*, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindakoa, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren bidez. Euskal gizartearen bilakaera markatuko duen

egiturazko fenomeno sozial baten kudeaketarekin kezkatuta dagoela izenburuan bertan adierazteko asmoz aldatu zitzaion izena, hau da, gure erkidegoaren aniztasuna gero eta handiagoa delako, herritartasunari, eskubideei, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari, aniztasun soziokulturalarekiko errespetuari, kulturarteko bizikidetzatik abiatutako eraldaketa sozialari, gizarteratzeari eta gizarte-kohesioari dagokienez.

V. Planak hainbat alderdi jorratu nahi izan ditu. Horretarako, lan-tresna eraginkorra eta bitarteko eraginkor eta efizientea izan nahi izan du Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren (orain, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza) esku-hartzerako estrategia globala diseinatzeko orduan, batetik, eta soziokulturalki askotarikoak diren pertsonen arteko harremanak bultzatuko dituzten estrategia bereziak garatu eta ezartzeko orduan, bestetik. Hain zuzen ere, estrategia horien asmoa pertsonen kolektibo guztiak integratzeko aukera ematea izango da, bai eta gizarte gero eta askotarikoago baten ikuspegi inklusiboa bultzatzea eta gure herri eta auzoetan bizikidetzak hobetzea ere.

Orain, V. Planak bere indarraldia bete duenez, Planaren garapena (prozesuaren ebaluazioa) eta epe laburreko eragin soziala (emaitzen ebaluazioa) ebaluatzen ari da.

Nabarmentzekoa da *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren* indarraldia 2018-2020ra mugatzea aurreikusi zen arren, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz aldi hori 2021. urtera luzatzea gomendatu zela; beraz, praktikan, 2018-2021 aldian zehar garatu den plan bat izan da.

V. Planaren garapenaren gaineko ebaluazioa itzuliz, haren egitura eta helburuak gogoratzea garrantzitsua da:

- Estrategikoak: plan horren lehentasunetako bat aniztasunaren kudeaketa eta kulturartekotasunaren erabilera gizarte eraldatzeko faktore gisa dimentsionatzea eta behar bezala kokatzea zen.
- Antolakuntzakoak: V. Planak jasotzen zuen beharrezkoa zela eragile bakoitzak bertan modu koordinatuan garatu behar duen rola zehaztuko zuen sistema bat berreraikitzea: Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza (orain Migrazio eta Asilo Zuzendaritza), Biltzen, Ikuspegi, Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia, Aldundiak, Udalak, Hirugarren Sektorea, Aholku-Sarea, Eraberean Sarea, Immigrazioaren aldeko Foroa, elkarteak (auzo-elkarteak, enpresa-elkarteak, elkarte soziokulturalak, kirol-elkarteak...), enpresak, sindikatuak, unibertsitateak, erlijio-kongregazioak, komunikabideak eta abar.
- Sektorialak: planak lehentasunezko jarduera-esparruak ere ezartzen zituen: hezkuntza, enplegua eta bizikidetzak; eremu osagarriak, osasuna, etxebizitza eta esparru juridikoa; eta arreta berezia behar duten kolektibo batzuei ere erreparatzen zien.

Hau da, *2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planak* bi helburu nagusi lortu nahi zituen:

- alde batetik, sektorearen eskaera bati erantzutea, Eusko Jaurlaritzak bere lidergo-rola indartzeko eta immigrazioaren, herritartasunaren, kulturartekotasunaren,

eskubideetarako sarbidearen eta betebeharrak bereganatzearen, bizikidetza inklusiboaren eta gizarteratzearen sektorean lan egiten duten eragileek osatzen duten sistema dinamizatu, koordinatu, bateratu, kohesionatu, lagundu eta gidatzeko, genero-ikuspegitik;

- eta, bestetik, arreta politiko eta sozialaren fokua immigrazioan, bizikidetzan eta gizarte-integrazioan birjartzea.

Hurrengo orrialdeetan, *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana* ebaluatzeko eta urte hauetan guztietan egindako aurrerapenetan aurrera egin eta sakonduko duen VI. Plana egiteko lanak bideratzeko lortu dugun informazioa garatuko dugu.

2. EBALUAZIOAREN METODOLOGIA

Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren ebaluazioa egiteko, ikerketa-metodologia kualitatibo batean oinarritu gara, eta, horri esker, estrategia horren ezagutza eta erabilera zehaztu ahal izan ditugu, bai eta estrategia horrek barne hartzen dituen ekintzen jorratze- eta ezarpen-maila ezarri ere.

Ebaluazioa egiteko, iturri hauetatik lortutako informazioa izan dugu eskuragarri:

- Hamalau bilera (*focus group*) *Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroko* zortzi batzordeekin, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikariek, Biltzeneko langileekin, Ikuspegiko langileekin, udal- eta foru-esparruan lan egiten duten teknikariek, esparru akademikoko eta enpresa pribatuetako adituekin eta hirugarren sektoreko erakunde eta elkarteekin.

Gainera, ekintza bakoitza ekintzaren jabe den pertsonari (instantziari) eman zaio, hau da, ekintzari ekiteaz eta hura garatzeaz arduratzen direnei, ekintza horiek egin diren eta helburuak zenbateraino bete diren jakiteko ebidentziak eman ditzaten. Informazio horri esker, planaren jorratze- eta garapen-maila zehatz-mehatz eta oro har ezarri ahal izan dugu.

Ikerketa kualitatiboko lanak, *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren* Ebaluazio Txosten hau egiteko balio izateaz gain, Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren 2022-2025 aldirako *Immigrazioari eta Asiloari buruzko Kulturarteko VI. Plana* idazten ere lagundu digu.

3. 2018-2020 ALDIAN HERRITARTASUNAREN, KULTURARTEKOTASUNAREN ETA IMMIGRAZIOAREN ESPARRUAN JARDUTEKO V. PLANAREN GARAPENA



Txosten honen bidez, *2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren* ebaluazioa egin nahi da. Plan hori, bere garaian, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzako arduradunek aurkeztu zuten.

Plan horrek 102 ekintza biltzen ditu, hiru atal handitan banatuta: neurri estrategikoak, antolakuntza-neurriak eta neurri programatikoak.

Ebaluazio-metodologia kualitatibo bat aukeratu dugu (ikerketa-tekniketan oinarritua, hala nola elkarrizketetan eta talde-dinamiketan), *2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren* garapenari buruzko baloraziorako hurbilketa bat egin ahal izateko.

Nabarmendu nahi dugun lehen alderdia da kontsultatu ditugun eragileen zein elkarte eta erakundeetako bozeramaileen ustez buruzagitza-, koordinazio- eta lerrokatze-lan handiago bat falta izan dela agirian aipatzen diren lanei dagokienez. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza berrian gorpuztutako lidergo administratibo-politikoaren lortzeak, neurri batean, lidergo handiago baten beharra arintzen du, baina ez du betetzen kontsultatutako eragile askoren nahia, behin eta berriz esaten baitute Eusko Jaurlaritzak protagonistagoa izan behar duela gizarte-politikak egiteko eta abian jartzeko orduan.

Bileretan lortutako informazioak adierazten digunez, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza izan arren, beharrezkoa da dauden baliabideak eta eragileak koordinatu eta zuzenduko dituen lidergo bat finkatzea eta bere gain hartzea, ahalik eta jarduera eraginkor eta efizienteena garatzeko.

2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana eraginkorra izan da hainbat alderditan, baina ez guztietan. Sektorean inplikaturik dauden pertsonen sentsazio orokorra da, oro har, planak bere helburuak lortu dituela, baina hurrengo planerako zereginak geratzen direla.

Hala eta guztiz ere, *2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren* eguneroko presentzia handiagoa eskatzen bada ere, garrantzitsua da azpimarratzea plan horretan jasotako ekintza askori ekin zaiela eta gehienak, zati batean edo osorik, garatu direla. Testuinguru bereziki konplikatuan, gainera, 2020ko eta 2021eko azken bi urteetan, COVID-19aren pandemia sanitarioak eragindako egoera zailagatik.

2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren garapena aztertzeari esker, etorkizuneko jarduera-beharrak ere ezagutu ahal izan dira, eta, dokumentu honen amaieran, hurrengo plana egiteko beharrezko ildoak, helburuak eta bitartekoak ezarri ahal izan dira.

Jarraian, *2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren* jasotako ekintza guztiak banan-banan aztertuko ditugu, eta zehaztuko dugu ekintza horiek, osorik edo zati batean, gauzatu diren edo ez, kasu batzuetan zergatik ez diren egin zehaztuta.

Oro har, eta laburpen gisara, esan dezakegu V. Planaren ekintzatzat jo daitezkeen 102 kontzeptu zenbatu ditugula (horietako batzuk urrutiago doaz eta programatzat jo daitezke, beste batzuk zerbitzutat, eta beste batzuk aurrekontu-ildotzat...). Eta horiei buruzko informazio nahikoa dugu baieztatzeko 35 osorik garatu direla aurreikusita zegoen bezala, 23 partzialki jorratu direla edo inplementazio-prozesuan daudela, eta 44 ez direla jorratu. Aztertu ez diren horietatik, 15 ez dira martxan jarri, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak ez baitu egokitzen jo horiek abian jartzea, hasiera batean interesgarriak izan arren.

Gainera, garrantzitsua da egiaztatzea 11 ekintza estrategikoetatik –immigrazioaren kudeaketa eta haren ondoriozko aniztasun soziokulturala oro har hobetzeko garrantzitsuenak– 7 erabat garatu direla, 2 martxan daudela eta gainerako 2ak ezetsi egin direla estrategia-aldaketagatik. Hau da, ekintza garrantzitsuenak gauzatu direla esan daiteke. Beste horrenbeste esan dezakegu plan osoa behar bezala garatzeko ezinbestekoak diren antolaketa-ekintzez: 15 ekintzetatik 4 osorik garatu dira, 3 partzialki garatu dira edo garatzen ari dira, 2 ez dira jorratu, eta beste 6 atzera bota dira funtzionamendu-estrategia aldatu delako.

2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren garapena kuantifikatu beharko bagenu, eta haren garapena zifra bakar batean laburbildu, baieztatu genezake bere ahalmenaren % 60-65 inguru ezarri dela, COVID-19aren pandemiak eragindako testuinguru oso zail batean, zeinak eragin larria izan baitu planaren bi urtetan (2020-2021: nahiz eta hasiera batean plana 2018-2020 aldirako aurreikusi zen, berez indarrean egon da 2018-2021 bitartean). Prozesuaren ebaluazioari erreparatuz gero, arrakasta neurtua izan dela esan daiteke.

3.1. EKINTZAK

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.1. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza finkatzea, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloan Zuzendaritzaren ekintzak koordinatuko dituen zerbitzuburu bat sortuz.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, ekintza egin da. Zuzendaritzak Zerbitzu Burutza berri bat dauka.
Eraitzen ebaluazioa	Pertsona hori dagoeneko sartuta dago Migrazio eta Asilo Zuzendaritzan.

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.2. Etorkizuneko legegintzaldi batean, Herritartasun, Kulturartekotasun eta Immigrazio Zuzendaritza berreskuratzea, Eusko Jaurlaritzaren egitura egonkorren barruan.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, ekintza egin da. 2021aren hasieratik, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza bat dago, Xabier Legarreta zuzendariaren ardurapean.
Emaitzen ebaluazioa	Zuzendariak presentzia eta dedikazio handiagoa izan behar du migrazioen esparruan.

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.3. Lehendik zeuden lantaldeak sendotzea eta lantalde berriak ezartzea, maila politikoan eta teknikoan, Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza eta/edo instantzia batzuen artean, arreta berezia jarritz Hezkuntza Sailean, Lanbiden, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusian eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, egin gabeko ekintza.
Eraitzen ebaluazioa	COVID-19ak eragotzi egin zuen lantalde horiek martxan jartzea. Nolanahi ere, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak estrategia aldatzea erabaki zuen, eta lantalde berriak sortu beharrean, lehendik zeudenen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea erabaki da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa arautzen duen Dekretua aldatzeko prozesua hasi da, dauden batzordeak eraginkorrak izan daitezkeen.

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.4. Lan-mahai espezifiko bat sortzea, immigrazioaren, atzerritarren eta bizikidetzaren esparruko eskumen autonomiko gehienetara iristea ahalbidetuko duen lege-esparrua aztertzeke, arreta berezia jarritz sustraitzeko betekizunei, lan-baimenei, egoitza-baimenei, familia-elkarteari, harrera-eskumenari eta abarri dagokienez.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, ekintza egin da. Adituen lan-taldea 2020ko urtarrilean sortu zen, eta honako hauek osatu zuten: Unai Aspuru (Eusko Jaurlaritzako teknikaria), Leire Garrastatxu (Biltzeneko teknikaria), Carlos Regidor (Bilboko Udaleko teknikaria) eta Jose A. Oleaga (Begirune Fundazioko teknikaria). 2020ko urtariletik martxora bitartean, aurrez aurreko bost saio egin zituen. Ondoren, osasun-pandemiaren murrizketen ondorioz, lanak ez ziren aurrez aurrekoak izan. Posta elektronikoz trukatu zen informazioa. Irailean eta urrian, aurrez aurreko saioei ekin zitzaien berriro, eta hilero bat egin zen. Ondoren, eta lege-esparruaren txostenaren lehen zirriborroa egin ostean, 2020ko azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean, otsailean, martxoan eta apirilean hura fintzen jarraitu zen. 2021eko apirilaren amaieran itxitzat eman zen Lege Txostena izeneko dokumentua, eta Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari eman zitzaion.
Emitzen ebaluazioa	Legebiltzarreko lan-batzorde bat berriro osatzeko zain, dokumentua prest dago Legebiltzarrean eztabaidatzeko.

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.5. <i>Euskadin Immigrazioaren aldeko Itun Soziala. Bizikidetzaren aldeko konpromisoa</i> berrabiaraztea, indar politiko eta gizarte-eragile guztien legebiltzarreko eta erakundearteko itunaren formulapean, esparru horretan joko politikoaren mugak eta arauak ezartzeko.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, ekintza egin da. 2012. urteko dokumentua 2018an eta 2019an berrikusi zen, edukia gehituz eta eguneratuz. 2018ko abenduaren 18an, lehendakariak aurreratu zuen Eusko Jaurlaritzak Migraziorako Euskal Itun Soziala abian jartzeko asmoa zuela. Eusko Jaurlaritzako lan politiko eta teknikoko batzorde batek berrikusi eta onartu ondoren, azken dokumentua Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoekin (EAJ, PSE, Podemos eta Bildu) eta EAEko migrazioen sektoreko eragile sozialekin adostu zen. Ondoren, erakunde-maila desberdinak (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak), migrazioen esparruan lan egiten duten hirugarren sektoreko erakunde gehienak (atzeritar jatorriko pertsonen eta pertsonentzako erakundeak), sindikatuak eta enpresa-erakundeak gehitu zitzaizkion Itunari. 2019ko azaroaren 30ean, Itunarekiko atxikimendua irudikatu zen, euskal gizarte-eragile gehienek presentziarekin.
Eraitzen ebaluazioa	Ituna eguneratzen aurrera egin ahala, eta hainbat gizarte-eragilek bat egin zuten heinean, euskal gizartearen gehiengoak ezetsi egin zuen Legebiltzarrean onarpena ematea, beren ustez Itun Soziala delako, eta ez Itun Politikoa, agertoki politikotik haratago doana eta euskal gizartearen bihotzean kokatzen dena.

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.6. Esparru horretan diskurtso politiko positiboa indartzea eta diskurtso hori herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren inguruan kokatzea: harreratik integrazioa eta aniztasunaren kudeaketara.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, ekintza egin da. 2020ko lehen sei hilekoan, Begirune Fundazioak, ZAS! Sarearekin lankidetzan, migrazioen inguruan EAEn zabaldu beharreko diskurtso politikoaren aurretiazko txosten bat egin zuen. Aurretiazko txosten hori, EAEko migrazio-mugimenduei buruzko dekalogo diskurtsibo gisa, abiapuntua izan zen. Hala, asmo handiagoa eta metodologia zientifikoa duen ikerketa baten lan-hipotesia planteatu zuen. Ikerketa hori Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak egin du, Begirune Fundazioarekin elkarlanean, 2020ko bigarren sei hilekoan eta 2021eko lehen sei hilekoan zehar. Azken txostena Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari entregatu zaio, 2021eko uztailean.
Eraitzen ebaluazioa	Ikusteke dago diskurtso politikoaren azterketak Eusko Jaurlaritzaren gobernu-taldea osatzen duten alderdi politikoaren diskurtsoetan, beste alderdi politiko batzuen diskurtsoetan eta euskal gizarte osoan izan dezakeen eragina.

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.7. Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen 271/2012 Dekretua eguneratzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, partzialki egin da. 2020an eta 2021eko lehen hiruhilekoan, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren dirulaguntza-lerroei buruzko txosten bat aztertu eta egin du Begirune Fundazioak. Txostena Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari entregatu zitzaion 2021eko apirilean. Bertan, Eusko Jaurlaritzak migrazioen arloan ematen dituen dirulaguntza-lerroak arautzen dituen Dekretua aldatzeko zenbait neurri eta gomendio jasotzen ziren.
Eraitzen ebaluazioa	Hala ere, ez da egin egungo dirulaguntza-lerroak aldatuko dituen dekretu berririk.

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.8. Aztergai dugun lan-eremuan EAEn eta Espainiako Estatuan ezarritako diskurtso politikoen eta politiken azterketa diagnostikoa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, ekintza egin da.
Emitzen ebaluazioa	Atzerriko immigrazioaren aurkako diskurtsoen azterketa diagnostiko integrala. Txostena Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak egin du. Duela gutxi argitaratu du txostena bere webgunean.

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.9. Prestakuntza-plan bat egitea Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzako teknikarientzat, bereziki, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarentzat, oro har.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, ekintza egin da. 2020an eta 2021ean prestakuntza-mintegi batzuk egin dira Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikarientzat. Zehazki, Kataluniako lege-esparruari eta migrazioei buruzko 10 saio eta mintegi bat egin dira goiz eta arratsaldean, Euskal Estatutu berriaren aukerak aztertzeko. Egindako mintegiak (10 mintegi): Abendua (2019): Enrique Sacanell Otsaila (2020): Enrique Sacanell Otsaila (2020): Gotzon Baraia-Etxaburu Ekaina (2020): Julia Shershneva Uztaila (2020): Arkaitz Fullaondo Iraila (2020): Gotzon Baraia-Etxaburu Azaroa (2020): Xabier Aierdi, José A. Oleaga eta Andrea Ruiz Otsaila (2021): Maite Fouassier Apirila (2021): José A. Oleaga Uztaila (2021): Andrea Ruiz Gainera, egun osoko mintegi bat egin zen 2020ko urtarrilean (8 ordu), lege-esparruari buruz, lau pertsonak emana: Marcus González, Ángel Miret, Oriol Amorós eta David Moya.
Eraitzen ebaluazioa	37 ordu 70 parte-hartzaile

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.10. Elkarte-sarea indartzea herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan, migratzaile-kolektiboen ordezkartza eta elkarriketa sozial eta politikorako gaitasuna indartzea gobernantzaren arabera, bai eta eragile euskaltzaileen eta aniztasunaren aldekoen arteko harremanak eta aliantzak laguntzea eta sustatzea ere.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, partzialki egin da. Tresna bat dago herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuko gizarte-erakundearen direktorioa egiteko, baina ez da katalogoa egin. Biltzen Hirugarren Sektorearen Behatokiarekin kontraste-fasean dago, lehendik dauden direktorioak ez errepikatzen. Direktorioa egiteko prozesua urte hasieran martxan jartzea zen aurreikuspena, baina atzerapena egon da lehentasunak definitzean, eta, batez ere, direktorio horretarako aurreikusitako erabilera definitzean, Zuzendaritzarekin kontrastean. Bien bitartean, 2018tik 2019ra, elkarteak indartzeko programa garatu da, ondoren, Kultur 'Connection' deiturikoa bihurturikoa, Biltzenek sustatua, EDE Fundazioarekin (Bolunta) eta Ellacuria Fundazioarekin lankidetzan. Bi kasuetan, laguntza-prozesu bat izan da, ezagutza eta trebetasun jakin batzuk eskuratzeko eta alderdi antolatzaile eta operatiboak hobetzeko. Aurrekoaren ildotik, abiapuntuko planteamendua beste bat izan bada ere, COVID-19ak eragindako pandemia-egoerari emandako erantzunaren esparruan, 2020ko uztailan MigraCovid Sarea jarri zen martxan, Biltzenek dinamizatuta. Hiru lurralde historikoetako laurogei gizarte-eragile inguruk ez ezik, EAEko 13 ESletako Zaintza Epidemiologikoko Sareak eta osasun-erreferenteek ere parte hartu zuten.
Eraitzen ebaluazioa	Elkarteak indartzeko programaren eta ondorengo Kultur' Connection programaren kasuan, 2018 eta 2019 artean, EAE osoko 28 elkarte hartu dute parte, gehienak Bizkaikoak. 2020an programa horiei lotutako jarduerak bertan behera geratu ziren pandemiaren ondorioz, eta 2021ean zehar elkarte bakar bati lagundu zaio; Eslavo-Vasca Kultur Elkarteari. MigraCovid Sarean parte hartu duten erakundearen profila oso

	heterogeneoa izan da, elkarteak indartzeko programa horietan parte hartu duten erakundeena ez bezala. Jakina, hasierako laguntza-beharrak oso desberdinak ziren. Bultzatu nahi den elkartegintza-ereduari eta kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuko gizarte-erakundeek beren gain hartu nahi duten eginkizunari eta funtzioei buruzko hausnarketa egin behar da. Gogoeta horretan kontuan hartu beharreko bi alderdi aipatzearren, baloratu behar da elkartegintza aldez aurreko irizpiderik gabe sustatuz zer neurritan bultzatzen den elkarteen munduaren atomizazioa, eta zer neurritan elikatzen den elkartegintzaren formulak administrazio publikoarekin lankidetzan zerbitzuak emateko ate erraz bat irekitzen duelako fantasia.
--	--

	4.1.- NEURRI ESTRATEGIKOAK
Ekintza	4.1.11. Txostenak, materialak, zuzentarauak, jardunbide egokien eskuliburuak (euskara eta aniztasuna lotzen dituztenak barne) berrikustea, biltzea, itzultzea... herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan garrantzia duten gaiei dagokienez (erlijio-sinboloen erabilera, erlijio-eremuen irekiera, espazio publikoen erabilera, erlijio-dialektika eta genero-berdintasuna, eta abar).
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da ekintza egin.
Emitzen ebaluazioa	-

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.1. Bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloko sistema bat berreraikitzea, honako hauek integratu eta koordinatuko dituen: Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, Biltzen, Ikuspegi, Aholku Sarea, Eraberean Sarea, Eusko Jaurlaritzako beste instantzia batzuk (Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza...), Aldundiak, Udalak, elkarte-sarea (edo hirugarren sektorea), beste organismo eta erakunde batzuk (unibertsitateak, beste administrazio batzuk, erakunde pribatuak eta abar), Immigrazio Foroak, eta Espainiako Gobernuko Ordezkaritza eta Ordezkariordeztzak.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, partzialki egin da. Migrazioen eta asiloaren eremuan interesak eta lana partekatzen dituzten eragile guztien sistema koordinatu eta antolatua berrezartzen hasi da. Alde batetik, udal- eta foru-teknikariek berriro ezarri dituzte koordinazio-protokoloak, eta berriro ere topaguneak eraiki dituzte eta Zuzendaritzako teknikariek, Biltzenekin eta Ikuspegirekin bateratu dituzte Begirune Fundazioak koordinatutako lanak. Gainera, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako, Ikuspegiko, Biltzeneko eta Begirune Fundazioko teknikariak koordinatzeko eta bateratzeko guneak ezarri ziren. Hala ere, pandemiaren etorrerak eta ondorengo mugikortasun-murrizketek 2019an eta 2020an egindako lehen bi koordinazio-bilarekin jarraitzea eragotzi zuten. Edozein kasutan, ez da neurririk aktibatu sailarteko egungo lantaldeak indartzeko (zuzendaritzako teknikarientzako lau prestakuntza-mintegiez harago), eta ez dira abian jarri V. Planean aurreikusita zeuden beste lantalde batzuk, Hezkuntza, Enplegu, Hizkuntza Politika eta Segurtasun Sailekin batera egindako lanari dagozkionak. Estrategia aldatzea erabaki da, 4.1.3 ekintzan adierazi dugun bezala.
Eraitzen ebaluazioa	2 bilera Zuzendaritzarekin, Biltzenekin, Ikuspegirekin eta Begirune Fundazioarekin. 4 prestakuntza-mintegi Zuzendaritzako teknikariek. 5 koordinazio-bilera udal eta foruko teknikariek.

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.2. Biltzenen helburuak eraberritzea eta birdefinitzea, bere ekintza Zuzendaritzaren etorkizuneko ildo estrategikoekin lerrokatuz.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki hasita; prozesuan dago.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.3. Ikuspegiren helburuak eraberritzea eta birdefinitzea, bere ekintza Zuzendaritzaren etorkizuneko ildo estrategikoekin lerrokatuz.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin, ez baita beharrezkotzat jo. Hala ere, komenigarria litzateke Ikuspegiren eta Zuzendaritzako teknikarien arteko harremanak sustatzea, koordinazioa hobetzeko.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.4. Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa eta bere sei batzordeak eta egokitzen jotzen diren beste batzorde batzuk berrorientatzea, Planaren garapenaren eta ezarpenaren jarraipena egiteko zereginak bere gain hartuz.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, partzialki egin da. Prozesuan dago; partzialki hasita.
Eraitzen ebaluazioa	Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak 2021eko erdialdean hasi zuen Foroa eraberritzeko prozesua. Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroaren 8 batzordeekin eta beste 6 lantalderekin 14 bilera egin ondoren, Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa berritzeko proposamena egin du. Proposamen hori Foroaren Batzorde Iraunkorrean eta Foroaren Osoko Bilkuran aurkeztu zen, 2021eko abenduan. Era berean, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak abian jarri du Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa arautzen duen Dekretua berritzeko eta eguneratzeko izapide-prozesua.

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.5. Gizarte-sustraitzeari buruzko txostenak, etxebizitza egokitzeko txostenak eta udal-eremuan integratzeko ahaleginari buruzko txostenak egiteko formula egokia aztertzea, politikei lotuta egon dadin.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin. Harrerako Euskal Eredu bat abian jartzea aztertzeako proba pilotu bat ezartzeko prozesuan gaudenez, egokiagotzat jo da gai hori geroagoko une baterako uztea; izan ere, etorkizuneko Harrera Eredu horrek hartzen duen moduaren arabera, egokiagoa izan daiteke sustraitze-txostenak Eusko Jaurlaritzan egitea edo, aitzitik, udal-teknikariek egitea.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.6. Online motako prestakuntza-eskaintza garatzea, zenbait hartzaileri zuzenduta (hezkuntzako langileak, osasuneko langileak, segurtasuneko langileak, gizarte-eragileak, enpresen sarea, hirugarren sektoreko erakundeak eta abar), prestatzaile-talde propioen edo kanpokoen bidez prestatu eta sentsibilizatu daitezzen.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da. V. Planaren indarraldian, bi ikastarori dagozkien edukiak diseinatu eta garatu dira, online eskaintzeko: • Atzeritartasunaren gaineko oinarrizko ikastaroa. Gaur egun entsegu pilotuaren fasean dago, Eibarko Udaleko immigrazio-arloarekin horretarako egindako akordio baten bidez. • Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko oinarrizko ikastaroa. Gaur egun, Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin kontrastatzeko eta gainbegiratzeko prozesuan dago, EAEko Administrazio Orokorraren eta EHUKo Zuzenbide Fakultatearen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan. Beste bi ikastaro daude aurre-aurreko fase batean, eta bi kasuetan kontrastatu gabe daude erakunde hartzaileen berezko prestakuntza-zerbitzuekin: kultura-aniztasunaren kudeaketa eta kultura-aniztasunaren kudeaketa harreman klinikoan. Aipatu ikastaroez gain (hasieratik daude diseinatuta online formatuan eskaintzeko), pandemiaren garaiko inguruabarrak direla-eta, telematikoki ematen hasi dira (Zoom) bi ikastaro hauek: • Atzeritartasuna, IVAPen eskari bati erantzuteko. • Kulturartekotasuna eta Genero-indarkeria, Osakidetzaren eskari bati erantzuteko.
Emaizten ebaluazioa	• Atzeritartasunari buruzko oinarrizko online ikastaroa: gaur egun martxan dago: bi talde daude eta guztira 48 pertsonak eman dute izena. • Atzeritartasunari buruzko ikastaroa zoom bidez: 10 pertsona. • Ikastaro mistoa, aurrez aurre + Zoom bidez, Kulturartekotasunari eta Genero-indarkeriari buruz: 13 pertsona aurrez aurre + 12 pertsona Zoom bidez.

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.7. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren web-orriaren edukiak eguneratzea, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuan.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin. Sailaren web-orri guztiak administratzen dituen pertsona bakarra dago. Horregatik, ez dago Zuzendaritzaren webguneaz soilik arduratzen den pertsonarik.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.8. Aurreko puntuko 4.2.1 ekintzan aipatutako sisteman Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren (orain Migrazio eta Asilo Zuzendaritza) zuzendaritza- eta lidergo-eginkizuna finkatzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza berri bat eta Zerbitzu Burutza berri bat sortu dira eta dagozkien langileez hornitu dira plazak, eta horri esker baieztatu daiteke sendotu egin dela Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritza- eta lidergo-eginkizuna migrazioen sektorean lan egiten duten eragile eta instantzien plangintzan eta koordinazioan.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.9. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak Lanbideko langileekin gidatuta eta koordinatuta, enpleguaren eta enplegura bideratutako atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen prestakuntzaren eremu espezifikoan lana eta ekimenak indartzeko.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Eraitzen ebaluazioa	COVID-19ak eragotzi egin zuen lantalde hori martxan jartzea. Nolanahi ere, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak estrategia aldatzea erabaki zuen, eta lantalde berriak sortu beharrean, lehendik zeudenen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea erabaki da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa arautzen duen Dekretua aldatzeko prozesua hasi da, dauden batzordeak eraginkorrakoak izan daitezen; zehazki, lan-batzordea.

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.10. Hezkuntza Saileko langileek gidatu eta koordinatutako lantaldea sendotzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren parte-hartzearekin, hezkuntza-arloan atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen dagokienez garatzen ari diren lana eta ekimenak indartzeko.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Eraitzen ebaluazioa	COVID-19ak eragotzi egin zuen lantalde hori martxan jartzea. Nolanahi ere, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak estrategia aldatzea erabaki zuen, eta lantalde berriak sortu beharrean, lehendik zeudenen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea erabaki da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa arautzen duen Dekretua aldatzeko prozesua hasi da, dauden batzordeak eraginkorrak izan daitezen; zehazki, hezkuntza-batzordea.

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.11. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gidatua eta koordinatua, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko langileekin, lana eta ekimenak indartzeko pertsona migratuen eremu espezifikoan, arrazoi ekonomiko, humanitario, ingurumeneko edo politikoengatik, asiloa eta aterpea eskatzen dutenak ahaztu gabe.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Eraitzen ebaluazioa	COVID-19ak eragotzi egin zuen lantalde hori martxan jartzea. Nolanahi ere, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak estrategia aldatzea erabaki zuen, eta lantalde berriak sortu beharrean, lehendik zeudenen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea erabaki da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa arautzen duen Dekretua aldatzeko prozesua hasi da, dauden batzordeak eraginkorragoak izan daitezen; zehazki, lan-batzordea.

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.12. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako langileekin gidatuta eta koordinatuta, jatorri atzerritarreko biztanleriaren artean euskara ikasi eta erabiltzeko bultzada ematearekin lotutako ekimenak eta lanak egiteko.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Eraitzen ebaluazioa	COVID-19ak eragotzi egin zuen lantalde hori martxan jartzea. Nolanahi ere, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak estrategia aldatzea erabaki zuen, eta lantalde berriak sortu beharrean, lehendik zeuden eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea erabaki da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa arautzen duen Dekretua aldatzeko prozesua hasi da, dauden batzordeak eraginkorrakoak izan daitezen; zehazki, Euskara, Partaidetza, Sentsibilizazio eta Kultura Batzordea.

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.2.13. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak Udaletako gizarte-zerbitzuetako eta immigrazioko teknikariek gidatuta eta koordinatuta, atzeritar jatorri edo/eta nazionalitateko pertsonen zuzendutako lana eta ekimenak indartzeko herri-mailan.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da. 2020. urtearen hasieratik, EAEko migrazioen eremuan lan egiten duten udal- eta foru-langile guztien sareko lantalde bat berreraikitzen ari gara. Ekintza hori hurrengoari gehitu zaio, eratutako lan-taldea mistoa delako: udalekoa eta forala. Pandemiak izugarri zaildu du talde horren lana. Hainbeste, ezen hasiera batean sortu ziren itxaropen guztiak ezin izan baitira bete, eztabaidaguneak (mintegi guztiak birtualak edo mistoak izan dira, hau da, presentzia fisiko eta birtualarekin garatuak) eta eztabaiden ondoriozko ekintzak sortzeko orduan. Oraingoz, ia prestakuntza-mintegiak egitera mugatu gara, baina informazioa eta elkarren beharrak ere partekatu dira. 2020tik 2021era bitartean, bost koordinazio-saio egin dira, eta horietan beste hainbeste hausnarketa- eta eztabaida-mintegi egin dira. Zehazki, Lorenzo Cachón (2020ko maiatza), Miguel Laparra (2020ko urria), Rubén Lasheras (2021eko urtarrila), Miguel Pajares (2021eko apirila) eta Gorka Urrutia (2021eko uztaila) izan ditugu. Koordinazio-saio bakoitzak 2 ordu eta erdi inguru iraun du, eta 26 pertsona inguru izan dira, batez beste. Udaletako eta foru-aldundietako teknikariek gain (une honetan 38 pertsonak osatzen dute kolektibo hori), koordinazio-bilerak guztietara gonbidatu eta agertu da gutxienez pertsona bat Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren ordezkari gisa, pertsona bat Biltzen elkartearen ordezkari gisa eta pertsona bat Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren ordezkari gisa. Mintegi guztiak bideoz grabatu dira, eta Begirune Fundazioaren Youtube kanalean sartu dira. Hala, materiala koordinazio-bilerara bertaratzetik izan ez dutenen eskura jarri da. Gainera, aldi berean, ZAS! Sareak mintegi horiek baliatu ditu hiru hizlariren (Lorenzo Cachón, Miguel Laparra eta Miguel Pajares) idatzizko

	materialak egiteko. Beste bi hizlarien (Rubén Lasheras eta Gorka Urrutia) gogoetekin, Begirune Fundazioak bi dokumentu egin ditu Berbetan bildumarako, eta horiek ere sareaosatzen duten pertsonen eskura daude, bereziki, eta euskal gizartearen eskura, oro har.
Emitzen ebaluazioa	Sareak potentzial txikiagoa badu ere pandemia sanitarioak eragindako inguruabar arraroen ondorioz, aise bete dira udal- eta foru-teknikarien sarea berreraikitze eta haien jarduerak koordinatzeko helburuak.

	4.2.- ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK
Ekintza	4.3.3.9. Etorkinen elkarte-sareari prestakuntza ematea, hitzaldien, mintegien, komunikabideetako parte-hartzeen eta abarren bidez, zenbait ikuspegitan oinarrituta: ikuspegi inklusibo eta kulturartekoa, herritarren eskubide eta betebeharrak, eta immigrante atzerritarren gizarteratzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da. V. Planaren aldian, hitzaldi, mintegi eta prestakuntzetan parte hartu du Ikuspegik.
Emitzen ebaluazioa	Ikuspegik honako hauek egin ditu aldi horietan: 2018 • “Immigrazio eta integrazioa EAEn” Jardunaldiak (VIII) antolatzea. • Batzorde Zientifikoan parte hartzea Espainiako Migrazioei buruzko Kongresuaren antolaketan. • Migrazioei buruzko panela koordinatzea Soziologiari buruzko Euskal Biltzarraren barruan. • Latinoamerikako Ikasketen Elkartearen Nazioarteko Kongresuan parte hartzea. • IMISCOEren VIII. Kongresu Nazionalean parte hartzea. • Amerikako Ikasketen Nazioarteko Kongresuan parte hartzea. • Lan Harremanei eta Enpleguaren Kudeaketari buruzko Masterrean parte hartzea. • UPV/EHUko Partaidetza eta Komunitate Garapena Masterrean parte hartzea. • Deustuko Unibertsitateko migrazioei buruzko nazioarteko masterrean parte hartzea. • Hitzaldiak ematea EHUko Gizarte Laneko Graduan eta Deustuko Gizarte Hezkuntzakoan. • Biltzenek antolatutako prestakuntza-saioetan parte hartzea. • Immigrazioaren fenomenoari buruzko ikastaro eta hitzaldi dibulгатiboetan parte hartzea EAE osoko hainbat udalerritan, bai datu estatistikoei buruz, bai

	immigrazioarekiko estereotipo eta aurreiritziei buruz. Kalkulatzen dugu 35-40 hitzaldi inguru eman direla. • Besteak beste. 2019 • T.6.1. “Immigrazio eta integrazioa EAEn” Jardunaldiak (XI) antolatzea. Urtero bezala, jardunaldiak antolatu ziren Biltzenekin batera. Urte horretan, bakarrik dauden Euskadiko adingabeei eta gazteei buruz aritu ziren. • Batzorde Zientifikoan parte hartzea Espainiako Migrazioei buruzko Kongresuaren antolaketan. Era berean, 4 komunikazio aurkeztu ziren kongresu honetan. • Espainiako Soziologia Kongresuan parte hartzea. 2 komunikazio aurkeztu ziren kongresuan. • Lan Harremanei eta Enpleguaren Kudeaketari buruzko Masterrean parte hartzea. • UPV/EHUko Partaidetza eta Komunitate Garapena Masterrean parte hartzea. • Deustuko Unibertsitateko migrazioei buruzko nazioarteko masterrean parte hartzea. • Hitzaldiak ematea EHUko Gizarte Laneko Graduan eta Deustuko Gizarte Hezkuntzakoan. • Biltzenek antolatutako prestakuntza-saioetan parte hartzea. • Immigrazioaren fenomenoari buruzko ikastaro eta hitzaldi dibulгатiboetan parte hartzea EAE osoko hainbat udalerritan, bai datu estatistikoei buruz, bai immigrazioarekiko estereotipo eta aurreiritziei buruz. Kalkulatzen dugu 55 hitzaldi inguru eman direla. • Besteak beste. 2020 • “Immigrazio eta integrazioa EAEn” Jardunaldiak (XII) antolatzea. Urtero bezala, jardunaldiak antolatu ziren Biltzenekin batera. Urte horretan, 2020ko urriaren 19an eta 20an izan ziren, aniztasunari eta askotariko diskriminazioari buruz. Urte horretan, berrikuntza gisa, eta administrazioek eskatzen dituzten edukiera eta distantzia sozialaren murrizketak ikusita, streaming eta parte-hartze birtualeko zerbitzu bat eskaini da, bai
--	--

	entzuleentzat, bai mahaietako parte-hartzaile batzuentzat. • REPS 2020 Kongresuko Batzorde Zientifikoan parte hartzea. Kongresua 2021eko martxora atzeratu da. • Migrazioei buruzko panela antolatu eta koordinatzea REPS 2020 Kongresuan. Era berean, 2021eko martxorako parte-hartzea bermatuta dago. • Lan Harremanei eta Enpleguaren Kudeaketari buruzko Masterrean parte hartzea. • UPV/EHUko Partaidetza eta Komunitate Garapena Masterrean parte hartzea. • Deustuko Unibertsitateko migrazioei buruzko nazioarteko masterrean parte hartzea. • Hitzaldiak ematea EHUko Gizarte Laneko Graduan eta Deustuko Gizarte Hezkuntzakotan. • HEGOAK antolatutako Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzari buruzko V. Biltzarrean parte hartzea. • Biltzenek antolatutako prestakuntza-saioetan parte hartzea. Urte horretan, parte-hartze hori murriztu egin da pandemiaren ondorioz. Dibulgazio-ikastaro eta -hitzaldietan parte hartzea. COVID-19aren ondorioz bizi dugun salbuespenezko egoera gorabehera, kopurua murriztu bada ere, immigrazioaren fenomenoari buruzko dibulgazio-hitzaldiak egin dira EAE osoko hainbat udalerritan, bai datu estatistikoei buruz, bai immigrazioarekiko estereotipoei eta aurreiritziei buruz. Kalkulatzen dugu 55 hitzaldi inguru eman direla.
--	---

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.10. Zuzendaritzak diskriminazioaren aurka eta tratu-berdintasunaren alde egiten duen lana finkatzea pertsona guztien eskubide eta zerbitzuetarako sarbidean, atzerritar jatorri eta/edo nazionalitatekoak barne, Eraberean Sarearen zeregina hausnartuz, aztertuz eta hobetuz.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez dugu egin. Plan hau sortu zenetik Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren ardurapean egon diren zuzendariak behin baino gehiagotan adierazi dute Eraberean Sarea indartu nahi dutela eta egiten duen lanaz eta aurkezten den agertoki berriaren aurrean izan beharko lukeen paperaz hausnartu nahi dutela. Egoera horretan, Eraberean Sareak lan-eremua partekatu behar du diskriminazioaren aurkako borrokaren esparruko beste sare eta behatoki batzuekin. Hala ere, aurreko Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzan ez da inoiz hausnarketa-prozesu hori hasi. Bestalde, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretua indarrean jarri zenetik, Eraberean Sareak bere kokapena aldatu du eta, gaur egun, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzara atxikita dago. Aniztasunaren eremua Giza Eskubideei lotutako Zuzendaritza berrian sartu da, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspegiarekin, eta hor kokatzen da Eraberean Sarea. Gaur egun, Zuzendaritza berriak ezarriko dituen jarraibideen zain dago Eraberean Sarea.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.11. EAEko segurtasun-arloko langileak (Ertzaintza eta udaltzainak) sentsibilizatzea eta prestatzea, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko prestakuntza-taldeen prestaketaren bidez eta zenbait ikuspegitan oinarrituta: ikuspegi inklusibo eta kulturartekoa, herritarren eskubide eta betebeharrak, eta immigrante atzerriarren gizarteratzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez dugu egin.
Eraitzen ebaluazioa	EAEko segurtasun-langileen prestakuntzarekin jarraitu da, baina ez da prestatzaile-talderik sortu. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza aztertzen ari da ea egokia den hurrengo planerako lan-ildo horri eustea edo beste prestakuntza-estrategia bat aukeratzea.

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.12. ZAS Zurrumurruen Aurkako Sarearen laguntza ekonomikoa edukitzea. Sare horrek atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektiboenganako estereotipo faltsuen eta aurreiritzien aurka borrokatzen du, diskurtso arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileen kontra eta gizarte berdinzaleago baten alde.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da.
Emitzen ebaluazioa	• Eusko Jaurlaritzaren 2020ko Memoria Justifikatzailea, ZAS!-ek egindako jarduerak eta materialak jasotzen dituen, eta 2020an gauzatutako proiektuen ZAS! Memoria. • ○ Zurrumurruen aurkako oinarritzko prestakuntza Aretxabaletan, Soraluzen, Beasainen, Oñatin, Irunen eta Deban. ○ Tokiko kit-ak egitea. ○ Biltzar eta eztabaida ibiltariak egitea Ordizian, Irunen, Elgoibarren, Deban, Arrasaten eta Azpeitian. ○ SOS Arrazakeria Gipuzkoarekiko koordinazioa. ○ “Bizkaia: zurrumurrurik gabeko lurraldea” proiektua. ▪ Zurrumurruen kontrako oinarritzko prestakuntza Gorlizan, Portugaleten, Gernikan, Arrigorriagan eta Balmasedan. ▪ Tokiko kit-ak eta politikariaren kit-a egitea. ▪ Biltzar eta eztabaida ibiltariak egitea Ordizian, Irunen, Elgoibarren, Deban, Arrasaten eta Azpeitian. ○ EJ, Giza Eskubideak proiektuak ○ Sareak Berregin proiektua. ○ ZAS!-en partaidetza TOKIKOM Sariatzen. ○ UPV/EHU proiektua: Garapenerako Lankidetzako Bulegoa. ○ Mondragón Unibertsitatea Prestakuntza. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. ○ Lankidetz hitzarmena Bilboko Udalarekin.

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.13. Zuzendaritzaren, Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren erakunde-komunikazioan kulturartekotasunaren ikuspegia ikusaraztea eta txertatzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez dago eginda.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.14. Jardunbide egokien katalogo bat egitea, euskara eta hizkuntza-aniztasuna auzo-mailan esperientzia positiboekin eta herri eta hirietako kulturarteko bizikidetzaren hobekuntzan eragina dutenekin lotzen dituztenak barne.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da. Begirune Fundazioak txosten bat egin du, azken urteotan euskara eta immigrazioa sustatzearen inguruan udal-mailan egin diren esperientziak jasotzen dituenak. Horretarako, 12 elkarrizketa inguru egin dira esperientzia horiek garatu dituzten udal-teknikariekin. Txostenean, jardunbide egokien adibide horiek jasotzen dira. Hala, gainerako udalerriei eskaini zaizkie, haietan gauzatzearen egokitasuna eta bideragarritasuna azter dezaten. Txostena Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari entregatu zaio, 2021eko lehen seihilekoan.
Eraitzen ebaluazioa	Begirune Fundazioak egindako txostena udal- eta foru- teknikarien sarean zabaldu da 2021eko lehen seihilekoan.

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.15. Komunikabideekin jardunbide egokien akordio bat sinatzea, genero-gaiarekin egin denaren antzera, herritartasunaren, kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren eremuan mugak ezarriko dituen, iritzi publiko informatua, errespetuzkoa eta eskubide- eta betebeharberdintasunean oinarritutakoa eraikitze aldera.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, partzialki egin da. Ekintza hori ez da amaitu, eta prozesuan dago. Begirune Fundazioa izan da Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak aurrera eramateko eskuordetu duen erakundea. Begirune Fundazioko teknikariek aurretik egindako esperientzia bati buruzko informazioa bildu zuten, eta, horren ondorioz, 2011. urtearen inguruan jardunbide egokien adostasun bat sinatu zen. Akordio hura jasotzen zuen dokumentutik abiatuta, jardunbide egokien akordioa eguneratuko zuen dekalogo berri bat egin zen. Dokumentu honen edukia kontrastatzeko, orduko Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko komunikazio-langileen lankidetzarekin, dokumentua euskal komunikazioaren arloko adituen talde batek berrikusi zuen (kazetari eta komunikatzaile adituak). Kontraste horren ondorioz, dokumentuaren bigarren bertsio bat egin zen, eta 2020ko uztailerako prest geratu zen. Hilabete horretako hauteskunde autonomikoen ondoriozko aldaketen zain, ekintza hori puntu honetan utzi zen, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza berriak berreskuratze zain. Beraz, agiria komunikabide nagusien artean zabaltzea eta akordioari atxikitze eta sinatzeko eskatzea falta da.
Eraitzen ebaluazioa	Ez da sinatu egindako akordioa jasotzen duen dokumentua.

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.16. Zuzendaritzak egindako ekarpena, agintari publikoak maila gorenean egon daitezen, atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektiboentzat adierazitako datetan, kultura-, kirol- eta gizarte-adierazpenetan eta abarretan.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez dago eginda.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.17. Ekintza proaktiboak hautematea, zerrendatzea eta sustatzea, udal- edo auzo-mailan, horiek osatzen dituzten kolektiboen elkarrekintza sustatu eta gune partekatuak sortuko dituztenak, euskara atzerritar jatorriko biztanleengana hurbiltzen duten eta hizkuntza-aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruko gizarte-topaketak sustatzen dituzten ekintza guztiak barne.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki eginda.
Eraitzen ebaluazioa	COVID-19aren pandemiak ekimen hau zaildu du. Alde batetik, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak Begirune Fundazioak egindako txosten bat du, atzerritar jatorriko pertsonen euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko udal-jardunbide egokiei buruzkoa. Hala ere, kulturalki askotarikoak diren pertsona eta taldeen arteko interakzio positiboa sustatzen duten udal-jardunbide egokiei buruzko txosten baliokiderik ez du.

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.18. Zuzendaritzaren laguntza edukitzea, atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonak alderdi politikoen, administrazioen, erakunde publiko eta pribatuen, kirolaren, euskal kulturaren, osasun-langileen, hezkuntzako langileen eta abarren ordezkaritza publikoan sartzeko.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez dugu egin. Ez dago loturarik ekintza horren eta Eraberean Sareak egiten duen lanaren artean. Inoiz, maila politikoan, Diskriminazioaren aurkako Behatokia sortzeko asmorik izan bada, Eraberean Sareak ez du asmo hori gauzatzeko enkargurik jaso. Ondorioz, helburu hori ez da Eraberean Sarearen lanean sartu.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.3.3.- BIZIKIDETZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.3.19. Erlijio-aniztasuna kudeatzeko araudiak, dokumentuak eta tresnak berrikustea eta egituratzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki egin da. Ez da jardunbide egokien katalogorik egin, baina Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak ere ez zuen aurreikusita. Hala ere, horrekin lotutako hainbat ekintza egin dira.
Eraitzen ebaluazioa	1. Lehendakariaren aginduz, 2017an zehar, sailarteko lantalde batek esparru-dokumentu bat egin zuen Eusko Jaurlaritzak erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean duen estrategia definitzeko. Idatzi ondoren eta ekarpenak jasotzeko lau hilabeteko epea ireki ondoren, 2018ko apirilaren 10ean Gobernu Kontseiluak honako hau onartu zuen: “Eusko Jaurlaritzaren Jarduera-Programa, bizikidetza sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan”. 2. Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-leku edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko lege-proiektua izapidetu da. Lege-aurreproiektu hori 2021eko ekainean onartu zen Gobernu Kontseiluan, eta Eusko Legebiltzarrera bidali zen, izapidetzeko. 3. ADOS batzordea: komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko ADOS Aholku Batzordea kide anitzeko organo bat da, 2018ko apirilaren 14an sortua, Eusko Jaurlaritzak eta euskal erakundeek Euskadiko komunitate islamikoekin dituzten harremanetan politika publikoetan parte hartzeko, lankidetzan aritzeko eta aholkuak emateko. 4. Batzorde horren helburua da Euskadiko errealitate islamikoa eta euskal erakundeen arteko lankidetza instituzionalizatzen laguntzea. Batzorde honek euskal islam tolerantia, irekia eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoaren edozein legitimazioaren aurkakoa aitortzeko eta sustatzeko borondate partekatua eta akordioa lantzen ditu. Hori dela eta, ADOS Aholkularitza Batzordearen xedea da komunitate islamikoek euskal gizartearen bizikidetza integratua izan dezaten sustatzea eta sendotzea, gizarte horren zati bat diren aldetik.

	5. Euskal Autonomia Erkidegoaren mapa sozio-erlijiosoa. 2021eko ekainean argitaratu zen joan den legegintzaldian Ikuspegi enkargatu zitzaion Mapa sozio-erlijiosoa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuarekin lankidetzan. Mapak euskal lurreko erlijio-aniztasuna jasotzen du, udalerriz udalerrri, bai konfesio eta fededunen kopuruari dagokionez, bai kultu-zentro eta -lekuen kopuruari dagokionez.
--	--

	4.3.4.- OSASUNAREN EREMUA
Ekintza	4.3.4.1. Langile sanitario eta ez-sanitarioak sentsibilizatzea eta prestatzea, Osakidetzako prestakuntza-taldeen prestaketaren bidez eta zenbait ikuspegitan oinarrituta: ikuspegi inklusibo eta kulturartekoa, herritarren eskubide eta betebeharrak, kulturarteko eskumenak eta immigrante atzeritarren gizarteratzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da.
Emitzen ebaluazioa	Osakidetzako profesionalek emandako prestakuntza: 2018 Kulturartekotasuna eta genero-indarkeria: 3 ikastaro, 52 pertsona, 18 ordu. Aniztasun kulturala harreman klinikoan: 2 ikastaro, 25 pertsona, 12 ordu. Genero-indarkeriari, matxismoari eta immigrazioari buruzko jardunaldian parte hartzea: 128 lagun, ordubeteko esku-hartzea. 2019 Kulturartekotasuna eta genero-indarkeria: 3 ikastaro, 42 pertsona, 18 ordu. Aniztasun kulturala harreman klinikoan: 3 ikastaro, 47 pertsona, 18 ordu. Eskubideak eta araubide juridikoa: 3 ikastaro, 58 pertsona, 6 ordu. Kalteberatasun-egoeran dauden migratzaile eta ijitoentzako arreta soziosanitarioari buruzko jardunaldian parte hartzea: 100 lagun, ordubeteko esku-hartzea. 2020 Kulturartekotasuna eta genero-indarkeria: 2 ikastaro, 48 pertsona, 12 ordu. 2021 Kulturartekotasuna eta genero-indarkeria: ikastaro 1, 25 lagun, 12 ordu.

	4.3.4.- OSASUNAREN EREMUA
Ekintza	4.3.4.2. Osasunaren zientzien arloko unibertsitateko ikasleak sentsibilizatu eta prestatzea (medikuntza, odontologia, erizaintza, fisioterapia, farmazia eta abar), arlo hauetan: ikuspegi inklusibo eta kulturartekoa, herritarren eskubide eta betebeharrak, kulturarteko gaitasunak eta atzerriko immigranteen gizarteratzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez dugu egin. Jasota dago horrelako eskaintza batek osasun-zientzien arloko ikasleen artean piztu dezakeen interesa, eta halaxe adierazi digute Osakidetza bidez emandako zenbait prestakuntza-saiotan. Hala eta guztiz ere, zailtasun nagusia titulazio horien curriculumean horrelako prestakuntza-proposamen bat txertatzeko beharrarekin lotuta dago, bestela formalki aitortu gabeko prestakuntza izango litzatekeena kreditu bihurtuz. Ildo horretan, identifikatuta ditugu irakasgaiak, baita gaur egun irakasgai horiek emateaz arduratzen diren irakasleak ere, Medikuntza, Erizaintza eta Fisioterapia graduatan, berrikuspen horretan enborreko irakasgaiak zein hautazko irakasgaiak sartuta. Era berean, Lanbide Heziketako zenbait titulazio identifikatuta daude, prestakuntza hori beren garapenen batean sar dezaketenak. Jarduera horretan aurrera egiteko, beharrezkoa da akordio bat lortzea Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzarekin eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin, eskainitako prestakuntza ofiziala izan dadin.
Emaitzen ebaluazioa	-

	4.3.4.- OSASUNAREN EREMUA
Ekintza	4.3.4.3. Osasun Sailarekin, elkarte-sarearekin eta unibertsitateekin lankidetzan aritzea, atzerritar jatorriko pertsonen osasun-arreta jasotzeko aukera berdinak dituztela agerian uzten duten datuak bilatzeko, edo, bestela, hori lortzeko neurri zuzentzaileak aztertzeko.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.3.5.- ETXEBIZITZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.5.1. Zuzendaritzaren laguntza izatea, EAEn dauden etxebizitzari buruzko araudiak aztertzen eta instantziei aldaketak proposatzen, kulturarteko ikuspegia txerta dezaten.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez dugu egin.
Emitzen ebaluazioa	-

	4.3.5.- ETXEBIZITZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.5.2. Higiezinaren sektoreko profesionalak sentsibilizatu eta prestatzea, arlo hauetan: ikuspegi inklusibo eta kulturartekoa, herritarren eskubide eta betebeharrak, kulturarteko gaitasunak eta atzerriko immigranteen gizarteratzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez dugu egin.
Eraitzen ebaluazioa	COVID-19aren pandemiak ekimen hau martxan jartzea eragotzi du; beraz, etorkizuneko ekintzetarako geratu da.

	4.3.5.- ETXEBIZITZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.5.3. Zuzendaritzaren laguntza izatea, EAEko etxebizitzari buruzko informazio-materialak hainbat hizkuntzatan prestatzeko orduan, araudia euskal gizartea osatzen duten kolektiboetara hurbiltzeko.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez dugu egin. Une honetan etxebizitza sozialari buruzko informazio-materiala hainbat hizkuntzatan ez badago ere, iritsi berriei Sail honek etxebizitzan ematen dituen zerbitzuei buruz Euskadin indarrean dagoen araudia errazteko, Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren web-orria dugu, eta horrek aukera ematen die herritarrei honako hauek ezagutzeko: • Garatzen ari diren etxebizitza-politikak. • Babes Publikoko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan eskaera bat eskuratzeko eta izapidetzeko modua, bai eta Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzetan arreta online eta aurrez aurre emateko zerbitzuak ere. • Etxebizitza publikoak esleitzeko sustapenak: eskabidea aurkezteko epea, parte hartu ahal izateko baldintzak, etab. • Etxebizitza publiko motak (erosketa, alokairua) eta horiek arautzen dituen araudia. • Etxebizitzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.
Eraitzen ebaluazioa	Ez dago material informatibotik hizkuntza desberdinetan.

	4.3.5.- ETXEBIZITZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.5.4. Zuzendaritzaren laguntza izatea, Etxebizitzaren Behatokiak azterlan soziologikoak egiteko, euskal gizartea osatzen duten kolektibo guztiek etxebizitza berdintasunez eskuratu ahal izan dezaten (edo, hala badagokio, diskriminazio-egoerak eta/edo berdintasunerako oztopoak argitara atera ditzaten), arreta berezia jarritz atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonengan.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	-

	4.3.5.- ETXEBIZITZAREN EREMUA
Ekintza	4.3.5.5. Zuzendaritzaren laguntza izatea, Etxebizitza Sailak etxebizitzak esleitzeko erabiltzen dituen irizpideak aztertzen eta aldaketak proposatzen (hala badagokio), eraikin, urbanizazio edo hiri-eremu jakin batzuetan atzerriko arbaso, jatorri edo nazionalitatea duten pertsona gehiegi ez biltzeko.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da. Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak gizarte-etxebizitzak esleitzeko irizpideak hobetzeko azterlanak egiten ditu, ezaugarri sozioekonomikoak eta estratifikazio soziala kontuan hartuta. Ilde horretan, abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuan (kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoan) gizarte-etxebizitzak esleitzeko zenbait irizpide aldatu dira, hala nola etxebizitza publikoa eskuratzeko eska daitezkeen urteko diru-sarrera haztatuen mugak, egungo errealitatera egokituta, eta babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan gizarte-arloko beharrak ebaztera eta gizarte-kohesioa babestera bideratutako kupoak.
Eraitzen ebaluazioa	Etxebizitza publikoak esleitzeko sustapen bakoitzean, berariaz kolektibo jakin bati zuzendutako araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokien kasuan izan ezik, etxebizitza-kupoak honako kolektibo hauen premiei erantzuteko gordetzen dira: • Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak (Desgaitasun-maila aitortu eta kalifikatzeko prozedura arautzen duenak) 2. eranskineko A edo B hizkiekin kalifikatutako desgaitasuna duten pertsonak, edo eranskin horretako D eta H arteko hizkien arabera 7 puntu edo gehiago dituztenak. • 36 urtetik beherako pertsonak, gutxienez titularretako bat adin horretatik beherakoa deneko bizikidetzak-unitateak barne. • Etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren titularrak. • Etxebizitza-premia bereziak dituzten pertsonak. • Gainerako eskatzaileak edo kupo orokorra. Kupo horiek behin-behinean zehazten dira etxebizitza sozialak esleitzeko prozedura hasteko aginduan, kontuan hartuta kolektibo

	bakoitzak ordezkatzeko duen ehunekoa sustapenaren udalerriko eta/edo eremu funtzionaleko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako pertsona edo bizikidetza-unitate guztiekiko. Prozeduran sartzeko epea amaitu ondoren, hasteko aginduan ezarritako kupoak eta kolektibo bakoitzak prozeduran sartutako pertsona edo bizikidetza-unitate guztiekiko duen ehunekoa funtsean desberdinak badira, aldatu egingo dira, egungo errealitatera egokitzeke. Era berean, etxebizitza-kupo horiek honako ehuneko hauek errespetatu beharko dituzte: • Desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako etxebizitzaren % 100 gordeko da. • 36 urtetik beherako pertsonentzat egokitu gabeko etxebizitzaren % 40 gordeko da, gehienez. • Eskubide subjektiboaren titularrentzat egokitu gabeko etxebizitzaren % 40 gordeko da, gehienez. • Erreserbatuta dauden kolektiboko pertsonen edo bizikidetza-unitateei esleitu gabe geratzen diren kupo bateko etxebizitzek kupo orokorrera bideratutako etxebizitzaren kupo handituko dute gainerako eskatzaileentzat. Kupoak ezartzeko irizpide horiekin batera, abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuan zenbait aldaketa egin dira baremazio-irizpideetan, hala nola bizikidetza-unitateko kideen kopurua sustapeneko etxebizitzek duten logela-kopuruaren arabera puntuatzea. Bi irizpide horiek, kupoak eta baremazioa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren agindu bakoitzean jasotzen dira. Agindu horren bidez, etxebizitza publikoak esleitzeko prozedura ezartzen da.
--	---

	4.3.6.- JUSTIZIA-EREMUA
Ekintza	4.3.6.1. Zuzendaritzak atzeritar arbaso, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen laguntza eta aholkularitza juridikoa emateko egiten duen lana finkatzea, Aholku Sarearen zeregina hausnartuz, aztertuz eta hobetuz.
Prozesuaren	Partzialki egin da.

ebaluazioa	
Emitzen ebaluazioa	Aholku Sarean lan egiten duten teknikariek, Berme Juridikoen Batzordearen bitartez, gogoeta egin eta sarea hobetzeko ekimenak abiarazi dituzte, baina ez da hausnarketa, azterketa eta hobekuntzako lan sistematikorik egin.

	4.3.6.- JUSTIZIA-EREMUA
Ekintza	4.3.6.2. Biltzenen aholkularitza juridikoko zerbitzua mantentzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da. 3 abokatuk osatzen dute Biltzen-ek atzeritartasunaren arloan eskaintzen duen laguntza juridikoa emateaz arduratzen den taldea. Batzuetan, alderdi tekniko batzuk kontrastatzeko laguntza izaten dute, zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den taldeko laugarren pertsona baten lankidetzarekin. Pertsona horrek atzeritartasunean aditua den abokatu gisa prestakuntza eta esperientzia dauka.
Emitzen ebaluazioa	• Zuzendaritzari emandako laguntzari esker, dozena bat gairekin lankidetzaz ezarri da, batez beste, urteko. Lankidetzaz horien irismena eta iraupena oso aldakorrek dira gaiaren eta eskaeraren presaren arabera. Adibide gisa, azken bi urteotan egindako lan batzuk gai hauei buruzkoak izan dira: lan-baimenen eta estatutuen erreformaren arloko eskumen-esparrua; “Integrazioari, migrazioei eta asiloari buruzko Euskadiren eta Espainiako Estatuaren arteko harreman-esparru berri baterantz” txostena; Atzeritartasun Erregelamenduaren erreformari egindako ekarpenen dokumentua, bakarrik dauden adingabe eta gazte atzerritarrek arautzeari dagokionez; Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari egindako hainbat kontsulta; etxeko langileen gaineko lan-planaren partaidetza; Madrilgo Erkidegoan bakarrik dauden adingabe atzerritarren txostenaren ekarpenak; Bizkaiko etxebizitzako lurralde-ordetzkaritzaren etxebizitza-txostena igortzearen bidez kotasunari eta lege kotasunari buruzko irizpide juridikoaren gaineko egiaztapena; eta hainbat lan-saio bakarrik dauden gazte atzerritarren txostenari buruz, Arartekoaren eskariari erantzunez. • Aholku Sareari laguntzeko zereginean, koordinazio-lanetan parte hartzea eta laguntza ematea sartzen da, sarea koordinatzeko urtean 11 bilera eginez, batez beste. Gainera, urtero 5 koordinazio-bileratan parte hartzen da sareko erreferentziazko teknikariarekin Migrazio eta Asilo Zuzendaritzan, eta urtean 2 prestakuntza-ekintza kudeatzen dira sarean parte hartzen duten erakundeetako profesionalentzat.

	4.3.6.- JUSTIZIA-EREMUA
Ekintza	4.3.6.3. Gizarte-baliabideak eskuratzeko baldintzak eta atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen dituzten oztopoak (berdintasun-egoeran dauden eskubide horiek benetan eskuratzearagotzen dutenak) aztertuko dituen txosten bat egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Eraitzen ebaluazioa	-

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.1. Segmentazio-ikerketa diagnostikoa, kalteberatasun-, bazterkeria- eta/edo marjinazio-egoera berezietan dauden atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko etorkinen kolektiboak hautemateko.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da.
Emitzen ebaluazioa	Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak horri buruzko txosten bat egin eta argitaratu du 2021ean: Inklusioaren eta integrazioaren indize sintetikoa: politika publikoak diseinatzeko tresna. Webgunean dago eskuragarri.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.2. Sailaren laguntza ekonomikoa ematea beren zaintzapean adingabeak dituzten atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin espezifikoki lan egiten duten erakundeei.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki eginda.
Eraitzen ebaluazioa	Ez da kolektibo hori lehenesten, baina Sailaren laguntzen artean kolektibo horri zuzendutako proiektuak diruz lagundu dira.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.3. Sailaren laguntza ekonomikoa ematea atzerritar jatorri eta/edo nazionalitate musulmaneko emakume etorkinekin, adin nagusikoekin eta gizarteratzeko arazoak dituztenekin berariaz lan egiten duten erakundeei.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki eginda.
Emitzen ebaluazioa	Ez da kolektibo hori lehenesten, baina Sailaren laguntzen artean kolektibo horri zuzendutako proiektuak diruz lagundu dira.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.4. Sailaren laguntza ekonomikoa ematea mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak eta adinekoak) zaintzen dituzten euskal etxeetan lan egiten duten atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin espezifikoki lan egiten duten erakundeei.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki eginda.
Emitzen ebaluazioa	Ez da kolektibo hori lehenesten, baina Sailaren laguntzen artean kolektibo horri zuzendutako proiektuak diruz lagundu dira.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.5. Sailaren laguntza ekonomikoa ematea prostituzioan aritzen diren atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin espezifikoki lan egiten duten erakundeei.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki eginda.
Emitzen ebaluazioa	Ez da kolektibo hori lehenesten, baina Sailaren laguntzen artean kolektibo horri zuzendutako proiektuak diruz lagundu dira.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.6. Sailaren laguntza ekonomikoa ematea inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrekin (18 urtetik beherakoak) espezifikoki lan egiten duten erakundeei.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki eginda.
Emitzen ebaluazioa	Ez da kolektibo hori lehenesten, baina Sailaren laguntzen artean kolektibo horri zuzendutako proiektuak diruz lagundu dira.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.7. Sailaren laguntza ekonomikoa ematea, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrentzako (18 urtetik beherakoak) berariazko prestakuntza-ibilbideak eta -programak egiteko.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki eginda.
Emitzen ebaluazioa	Ez da kolektibo hori lehenesten, baina Sailaren laguntzen artean kolektibo horri zuzendutako proiektuak diruz lagundu dira.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.8. Sailaren laguntza ekonomikoa ematea inoren kargura ez dauden gazte atzerritarrekin (18 urtetik gorakoak) espezifikoki lan egiten duten erakundeei.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki eginda.
Emitzen ebaluazioa	Ez da kolektibo hori lehenesten, baina Sailaren laguntzen artean kolektibo horri zuzendutako proiektuak diruz lagundu dira.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.9. Sailaren laguntza ekonomikoa ematea indarkeria matxistaren biktima diren atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin espezifikoki lan egiten duten erakunde eta elkarteei.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki eginda.
Emitzen ebaluazioa	Ez da kolektibo hori lehenesten, baina Sailaren laguntzen artean kolektibo horri zuzendutako proiektuak diruz lagundu dira.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.10. Adingabeak zaintzen dituzten atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko emakume etorkinen egoera eta premiak deskribatzeko azterketa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	COVID-19aren pandemiak ekimen honen hasiera atzeratu zuen. Gainera, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Ikuspegik estrategia aldatu dute, eta jatorri atzerritarreko emakumeei buruzko makro-azterketa bat egitea erabaki dute, hurrengo planerako, interes bereziko hainbat talderi heltzeko.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.11. Jatorri eta/edo nazionalitate atzeritarreko emakume etorkin musulmanen, adin nagusikoen eta gizarteratzeko arazoak dituzten emakumeen egoera eta premiak deskribatzeko azterketa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	COVID-19aren pandemiak ekimen honen hasiera atzeratu zuen. Gainera, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Ikuspegik estrategia aldatu dute, eta jatorri atzeritarreko emakumeei buruzko makro-azterketa bat egitea erabaki dute, hurrengo planerako, interes bereziko hainbat talderi heltzeko.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.12. Mendeko pertsonak (adingabeak eta adinekoak) zaintzeko lanak dituzten euskal etxeetan lan egiten duten atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko emakume etorkinen egoera eta premiak deskribatzen dituen azterketa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	COVID-19aren pandemiak ekimen honen hasiera atzeratu zuen. Gainera, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Ikuspegik estrategia aldatu dute, eta jatorri atzerritarreko emakumeei buruzko makro-azterketa bat egitea erabaki dute, hurrengo planerako, interes bereziko hainbat talderi heltzeko.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.13. Prostituzioan aritzen diren atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko emakume etorkinen egoera eta premiak deskribatzeko azterketa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Eraitzen ebaluazioa	COVID-19aren pandemiak ekimen honen hasiera atzeratu zuen. Gainera, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Ikuspegik estrategia aldatu dute, eta jatorri atzerritarreko emakumeei buruzko makro-azterketa bat egitea erabaki dute, hurrengo planerako, interes bereziko hainbat talderi heltzeko.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.14. Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren (18 urtetik beherakoak) egoera eta premiak deskribatzeko azterketa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki egin da.
Eraitzen ebaluazioa	Begirune Fundazioak Arartekoarekin kolaboratu zuen Euskadin familia-erreferenterik ez duten migratzaile gazteei buruzko txostenean.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.15. Inoren kargura ez dauden gazte atzerritarren (18 urtetik gorakoak) egoera eta premiak deskribatzeko azterketa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Partzialki egin da.
Eraitzen ebaluazioa	Begirune Fundazioak Arartekoarekin kolaboratu zuen Euskadin familia-erreferenterik ez duten migratzaile gazteei buruzko txostenean.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.16. EAEn jaiotako edo 4 urte bete baino lehen berriz elkartutako etorkin atzerritarren seme-alaben egoera eta premiak deskribatzen dituen azterketa egitea (bigarren belaunaldiak gaizki deitutakoak).
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da.
Emitzen ebaluazioa	Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren txostena. • Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. Bigarren belaunaldiak (gaizki) deiturikoak. Txostena azken bost urteetan egin da, eta Ikuspegiren webgunean editatu eta jendearen eskura jarri da.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.17. EAEn erlijio musulmana duten pertsonen kolektiboaren egoeraren azterketa deskribatzailea egitea: iruditeria soziala eta sinbolikoa, estereotipoak diskurtsoetan, aurreiritziak euskal gizartean.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	Atzera bota zen beste ikerketa-lehentasun batzuegatik.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.18. Iragaitzazko migrazio-egoeran dauden migratzaileen kolektiboaren egoeraren azterketa deskribatzailea egitea: egoera, beharrak, itxaropenak, ibilbideak, etab.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	Atzera bota zen beste ikerketa-lehentasun batzuengatik.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.19. Familia berriz elkartzeko prozesuei buruzko azterketa deskribatzailea egitea, arreta berezia jarriz berriz elkartutako adingabeengan: nazioz haraindiko berrelkartzea (jatorrian) eta harrera (helmugan).
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	Atzera bota zen beste ikerketa-lehentasun batzuegatik.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.20. Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloko jardunbide onak eta txarrak aztertzea Espainiako Estatuan, Europan eta beste herrialde batzuetan.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Eraitzen ebaluazioa	Atzera bota zen beste ikerketa-lehentasun batzuegatik.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.21. Azterketa deskribatzaile diagnostikoak egitea atzerritar arbaso, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen egoerari dagokionez, azterketa-eremuen arabera: prestakuntza eta enplegua lortzea, etxebizitza eskuratzea, egoitza-egoera, osasun-arreta, etab.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	Atzera bota zen beste ikerketa-lehentasun batzuengatik.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.22. Jatorri errumaniarra duten ijitoen kolektiboaren egoeraren azterketa deskribatzailea: egoera, beharrak, itxaropenak, ibilbideak, etab.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	Atzera bota zen beste ikerketa-lehentasun batzuengatik.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.23. Erroldatzearen azterketa eta analisisa egitea: erroldaren alde onak eta txarrak, eskubideak eta/edo zerbitzuak eskuratzeko tresna gisa, sistemaren perbertsioak, hobetzeko proposamenak, ondorio juridikoak, zailtasunak dituzten kolektiboak, etab.
Prozesuaren ebaluazioa	Egikaritze-prozesuan dago.
Emitzen ebaluazioa	Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia gai hori ikertzeko prozesu betean dago. 2022ko erdialderako dagokion txostena amaituta egongo da.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.24. Migrazio-prozesuetan sexu-esplotaziorako edo lan-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeei buruzko azterketa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez, ez da egin.
Emitzen ebaluazioa	COVID-19aren pandemiak ekimen honen hasiera atzeratu zuen. Gainera, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Ikuspegik estrategia aldatu dute, eta jatorri atzerritarreko emakumeei buruzko makro-azterketa bat egitea erabaki dute, hurrengo planerako, interes bereziko hainbat talderi heltzeko.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.25. Atzerriko immigrazioak EAEko ekonomian duen eragin sozioekonomikoari buruzko azterketa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Bai, egin da.
Emitzen ebaluazioa	Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2021ean egin zuen zegokion txostena, eta bere webgunean argitaratu zuen.

	4.3.7.- ARRETA BEREZIKO KOLEKTIBOAK
Ekintza	4.3.7.26. EAEko kontsulatuarekin bilera-sorta bat ezartzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ez dugu egin. Ez dago jasota ez Biltzen zerbitzuak ez Saileko zerbitzu juridikoek eskumen-mugei buruzko txostenik egin dutenik. Ohiko harremanak izaten dira bi kontsultarekin: Marokoko Erresumako Kontsulatu Nagusia eta Errumaniako Kontsulatu Nagusia. Bi kasuetan kontaktu informalak nagusitzen dira, ez baitago zerbitzuari beste harreman-mota bat ahalbidetzen dion esparrurik. Batzuetan, garrantzi txikiagoko harremanak izaten dira beste kontsulatu batzuekin, kontsulatu ibiltariak deiturikoekin barne (Ukraina eta Brasil, berrikiago). Gehienbat, telefonoz edo posta elektronikoz egiten diren kudeaketak dira, eta, neurri txikiagoan, kasuan kasuko kontsulatuarekin bertaratze fisikoa, bilerak, elkarrizketak edo antzekoak izaten dituzte. • Marokoko kontsulatuaren kasuan, hilean telefono bidezko 10-15 kontaktu izaten dira. Kasu gehienetan, jatorrizko dokumentuak EAEn egiten diren dokumentazio-eskariarekin egokitzeko zailtasunekin dute zerikusia, eta batzuetan alderantziz ere gertatzen da. Marokoko eta Espainiako Estatuko sare instituzional oso desberdinean justifikatzen diren kontsultak ere sartzen dira, adibidez, Autonomia Erkidegorik ez egotea eta foru-aldundiek eta haiei atxikitako zerbitzuek betetzen duten eginkizuna ez ezagutzea. • Errumaniako kontsulatuaren kasuan, maiztasuna txikiagoa da, baina intentsitate handiagokoa, eta kontsulatuarentzako eskaerak ere jasotzen ditu, jatorrizko herrialdean kudeaketak arinduz, ez soilik gizarte-zerbitzuekin zerikusia duten gaietan, baizik eta beste eremu batzuetan ere, hala nola osasunean. Urtean 6-8 kasu izaten dira, gutxi gorabehera, baina kontsulta hutsa gairatzen duen dedikazioa izaten dute. Izan ere, eskatzen duten gizarte-zerbitzuetako profesionalekin elkarrizketak, itzulpenak eta interpretazio-zerbitzuak egoten dira tartean. Gainera, aipatzekoa da Biltzen taldeko pertsonak kontsulatuak sustatutako jardunaldi edo topaketa kulturaletan parte hartu dutela V. Planaren indarraldian.
Eraitzen	Nahiz eta ez dagoen jasota lankidetzaren hitzarmenik sinatu denik, 2020an

ebaluazioa	Bilbon Errumaniako kontsul nagusiarekin egindako bileran (gaur egun Bilboko Kontsulatuaren Kidegoko dekanoa da), kontsulak berak adierazi zuen norabide horretan aurrera egiteko interesa, eta, hala, Bilboko Kontsulatuaren Kidegoaren eta Ertzaintzaren artean lehendik zegoen lankidetzak-akordio bat erreferentziatzen hartzeko aukera baloratu zen.
------------	---

3.2. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren aztertutako aldiko aurrekontu-partiden banakatzea webgunean eskuragarri dagoenez, atal honetan datu erantsiekin lan egin dugu (1. eta 2. taulak), ikuspuntu estrategikoago bat izan ahal izateko.

Egungo Migrazio eta Asilo Zuzendaritza (MAZ) 2018ko 4,51 milioi eurotik 2020ko 6,71 milioi eurora igaro da, hau da, % 48,57ko igoera izan du (1. taula). Gorakada horretan, 2018an onartu zen V. Plan horren eragina ikus daiteke.

1. taula. Zuzendaritzaren aurrekontuaren banaketa (€) (2018-2020)

Dirección de Política Familiar y Diversidad: inmigración y diversidad			
	2018	2019	2020
Presupuesto total	4.518.474	6.346.607	6.713.383
Gastos de personal y funcionamiento	500.327	512.029	517.557
Políticas y transferencias	4.018.147	5.834.578	6.195.826
Políticas y transferencias en diversidad y no discriminación	576.730	625.530	916.750
Políticas y transferencias específicas de inmigración	3.441.417	5.209.048	5.279.076
Mantenimiento del sistema	2.049.237	2.062.398	2.253.576
Programas permanentes	183.346	262.791	283.346
Otros programas (nominativas)	120.000	145.000	244.495
Acogida de jóvenes	40.000	140.000	190.000
Acogida inmigración	462.300	1.101.075	813.075
Asistencia jurídica	586.534	597.784	594.584
Acogida migración en tránsito		900.000	900.000

Iturria: Egileak egina

2. taula. Zuzendaritzaren aurrekontuaren banaketa (%) (2018-2020)

Dirección de Política Familiar y Diversidad: inmigración y diversidad			
	2018	2019	2020
Presupuesto total	100,0	100,0	100,0
Gastos de personal y funcionamiento	11,1	8,1	7,7
Políticas y transferencias	88,9	91,9	92,3
	100,0	100,0	100,0
Políticas y transferencias en diversidad y no discriminación	14,4	10,7	14,8
Políticas y transferencias específicas de inmigración	85,6	89,3	85,2
	100,0	100,0	100,0
Mantenimiento del sistema	59,5	39,6	42,7
Programas permanentes	5,3	5,0	5,4
Otros programas (nominativas)	3,5	2,8	4,6
Acogida de jóvenes	1,2	2,7	3,6
Acogida inmigración	13,4	21,1	15,4
Asistencia jurídica	17,0	11,5	11,3
Acogida migración en tránsito		17,3	17,0

Iturria: Egileak egina

Etengabe, inmigrazio-politika espezifikoen ehunekoa aurrekontuaren guztizkoaren hiru laurdenekoa da (2. taula). Hala ere, kontuz jardun behar dugu. Bideratutako kopurua % 50 inguru handitu da, baina igoera hori oso baldintzatuta egon da 2018an iragaitzazko migrazioa ustekabeen sartu delako, eta egoera hori 2019ko eta 2020ko aurrekontuetan islatzen da.

Kontzeptu handietara bideratutako aurrekontu-partiden banaketa ez da nabarmen aldatzen aztertutako aldi osoan (2018-2020). Aurrekontuen xedeen gaineko ikuspuntu sintetikoago bat osatzeko, kontzeptu hauei dagozkionak identifikatu ditugu. Partida horiek aztertutako urteetan izandako banaketa eta bilakaera ikusten da taulan.

Ikusten da, halaber, MAZen aurrekontu osoaren hiru laurden baino gehiago immigrazio-politika espezifikotara bideratzen direla etengabe.

Aurrekontu osoan jasotako partiden barne-azterketak adierazten digu hasierako bi atal nagusi ditugula:

1. sailaren beraren langile-gastuak eta administrazio-funtzionamendua, eta
2. politika eta transferentzia, aldi berean bi arlotan banatzen dena,
 - aniztasunari/ei, ijito-herriari, diskriminaziorik ezari eta tratu-berdintasunari buruzko politikak, batetik,
 - immigrazio-politika espezifikoak, bestetik.

Aurrekontua termino absolututan hazi den heinean, langile- eta funtzionamendu-gastuak (kontzeptu finko samarra) murriztu egin dira; dibertsitatearen eta diskriminaziorik ezaren politiketara bideratutako kopuruek eta immigrazio-politika espezifikotara bideratutakoek, termino absolututan handitu diren arren, banaketa egonkorra izan dute.

Immigrazio-politika espezifikoen banakapenean, aldaketarik garrantzitsuena da 2019an agertu dela iragaitzazko migratzaileen harrerari erantzuteko partida, partida guztien banaketa erlatiboa birdoitzten duena.

Immigrazio-politiken atalean, hainbat epigrafe bereizten ditugu:

- sistema mantentzea bera, non immigrazio-estrategiaren gailu zentralak sartzen ditugun: Biltzen, Ikuspegi, immigrazioko udal-teknikariak, Immigrazioaren Foroa
- denbora luzea baina munta txikia duten programa iraunkor batzuk
- helburu desberdinetara bideratutako izendunen multzo bat: ikerketa, antolaketa-sareen mantentzea, zurrumurruen aurkako estrategia
- gazte immigranteen harrera
- immigrazioaren harrera, bere osotasunean
- pertsona immigranteei arreta emateko zerbitzu juridikoak –Aholku Sarea–
- iragaitzazko migratzaileak hartzeko programak, 2018ko udako fluxuen ondorioz. Gaur egun, programa horiek garrantzi handia dute immigrazio-politika espezifiko guztien artean (% 17)

Adingabeei eta immigrazio guztiari harrera egitea immigrazio-politika espezifikoen barruan aurrekontuan jasotako zenbatekoaren % 20 inguru da; laguntza juridikoa, berriz, % 15 inguru, denboran jarraituta (% 11 eta % 17 bitartean, urteen arabera); eta denbora luzez datozen programak (programa iraunkorrak) eta izendunak % 5 inguru dira.

Aurrekontu-lerroei dagokienez, eta aurrekontu-xedeen ikuspegi sintetikoa izateko, 3. taulan horien banaketa eta bilakaera aurkezten ditugu aztertutako urteetan zehar.

3. taula. Zuzendaritzaren partida handien banaketa (2018-2020)

Transferencias y subvenciones gastos corrientes	2018	2019	2020	Total
Biltzen. Mediación intercultural y asistencia jurídica	918.660	918.660	1.109.838	2.947.158
Asistencia jurídica	586.534	586.534	603.484	1.776.552
Programas de Acogida	440.000	475.000	890.000	1.805.000
Técnicos LOC	498.080	498.080	498.080	1.494.240
Técnicos TEC	381.920	381.920	381.920	1.145.760
Investigación (Ikuspegi + Begirune)	247.738	247.738	427.233	922.709
Migrantes en tránsito	0	0	900.000	900.000
Actuaciones ámbito de inmigración, interculturalidad y traducción-interpretación	147.300	147.300	175.000	469.600
Desarrollo de acciones derivadas de la estrategia de inmigración.	100.000	149.445	50.000	299.445
Acercamiento al euskera como mecanismo de integración social.	10.000	70.000	70.000	150.000
Desarrollo de programas de apoyo a jóvenes de 16 a 23 años.			150.000	150.000
Otros	28.000	28.000	48.000	104.000
Sensibilización y comunicación de referentes profesionales de ascendencia, origen y/o nacionalidad extranjera.			120.000	120.000
Espacios de encuentro, reconocimiento y convivencia entre grupos y personas de orígenes diversos.	20.846	20.846	20.846	62.538
Despliegue del pacto social sobre inmigración en Euskadi.	20.000	20.000	20.000	60.000
Programa de sensibilización intercultural y contra el racismo y la xenofobia.	30.000			30.000
Foro de la inmigración	10.000	16.000	16.000	42.000
Antirumores			25.000	25.000
Formación en extranjería.	2.500	2.500	2.500	7.500
Gastos de funcionamiento	3.441.578	3.562.023	5.507.901	12.511.502

Iturria: Egileak egina

Immigrazio-politika espezifikotara zuzenean bideratutako aurrekontutik, sistemaren mantentzea zentzu hertsian (Biltzen, Ikuspegi, Aholkularitza Juridikoa, Immigrazioko teknikariak) aldakorra da bere pisu erlatiboan, iragaitzazko migrazioaren eskaerei erantzuteko 2019ko eta 2020ko aurrekontuaren igoeraren eraginez; batez ere 2,05-2,25 milioi euroko bolumenean mantentzen da: ez da askorik aldatzen bideratutako kopuruan, gorago aztertu den 1. taulan adierazi den bezala.


Harrera- eta aholkularitza-politikek immigrazio-politika espezifikoko horien aurrekontu osoaren % 30 osatzen dute, eta, normalean, zerbitzu hori ematen duten erakundeei ere definitutako programetarako izaera finkoarekin esleitutako kopuruak izaten dira, eta Sailaren luzapena izaten dira arlo horietan. Lehen ere esan dugunez, azken bi urteetako gertaera berritzailea iragaitzazko migrazioa hartzeko transferitutako kopurua izan da.

Programa iraunkor batzuk (atzerritartasunari buruzko prestakuntza, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako kulturarteko sentsibilizazioa, Itun Sozialaren hedapena, kulturarteko espazioen sustapena) kostu txikiagokoak dira. Programa horien artean aipatzekoa da euskara gizarteratzeko mekanismo gisa azaltzen duen epigrafeak izan duen gorakada, bai eta immigrazio-estrategiaren ondoriozko ekintzen edo atzerritar jatorriko preskripzio-emaeleen sustapenaren epigrafeek izandako igoera ere.

Azkenik, hitzarmen bidez, Harresiak Apurtuz eta ZAS! Sareak indartu dira, bai eta erakundeak (EH 11 Kolore) edo migrazioen inguruko ikerketa eta analitika soziala ere, Begirune Fundazioaren bitartez.

Laburbilduz, 2018-2020 aldirako immigrazioaren dimentsio ezberdinetera bideratutako 15,8 milioi euroko aurrekontuak honako banaketa portzentual hau hartzen du grafikoki (1. grafikoa).

1. grafikoa. MAZren aurrekontuaren banaketa programen arabera, %-tan, 2018-2020 aldian





Iturria: Egileak egina

Grafiko honetan Biltzen-era, Laguntza Juridikora eta Harrera Programetara bideratutako partidak nabarmentzen dira. Horiek guztiek batera, Zuzendaritzaren guztizko aurrekontuaren erdia hartzen dute. Horri udaletako eta zuzendaritzako langileak gehitzen bazaizkio, aurrekontuaren % 75 hartzen du.

Interesgarria da, orobat, partida horietako bakoitzak zer pisu erlatibo izan duen aztertutako ekitaldi bakoitzeko Zuzendaritzaren guztizko aurrekontuan.

2. grafikoa. Zuzendaritzaren aurrekontu-partida handien banaketa erlatiboa, 2018., 2019. eta 2020. urteetan



Iturria: Egileak egina

2. grafikoko irudietan ikus daitekeenez, hitzemandako aurrekontuaren bostena baino gehiago Biltzeni esleituta dago (% 20-27 inguru). Halaber, kopuru erlatibo garrantzitsuak daude honako partida hauetan ere: "immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren gaineko jardueretarako laguntzak eta immigrazioaren gaineko langile teknikoak kontratatzen jarraitzeko laguntzak" (% 16-25 inguru), Laguntza Juridikoa (% 11-17 inguru) eta Harrera Programak (% 13-16 inguru). Ikerketara bideratutako partidak (Ikuspegi eta Begirune) % 7-8 inguru dira.

Nabarmentzekoa da iragaitzazko migratzaileentzako partida handia 2020an, guztizkoaren % 16 hartzen duena. Gainerako gastuak zenbateko txikiagoko partidei dagozkie, hala nola Migrazioetarako Euskal Itun Sozialaren hedapenari edo jatorri desberdinetako pertsona-taldeen arteko topaguneei.

3.3. DIRULAGUNTZA-LERROAK

Aztertutako aldiaren ikuspuntu orokor bat izate aldera, Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren dirulaguntza-lerroen analisi bat egin dugu, bai Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren esparruan sartzen direnena, bai Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarenak diren ildoena; izan ere, batean zein bestean aurkitzen ditugu guztiz edo hein batean kultura-aniztasunarekin, bizikidetzarekin edota immigrazioarekin lotutako ekintza edo jarduerak.

4. taula. Laguntza eta dirulaguntza osagarrien banaketa dirulaguntza-lerro espezifikoaren arabera, handienetik txikienera ordenatuta, zenbateko absolutu eta erlatiboetan, 2018-2020 aldian metatutako datuak kontuan hartuta.

Concepto financiado	Total	%	% Acum.
Ayudas programas creados por tecnicos	930.546,00 €	10,36	10,36
Espacios interculturales	818.371,02 €	9,11	19,47
Ayudas tecnicos inmigracion	759.066,00 €	8,45	27,92
Inclusión sociolaboral	668.061,00 €	7,44	35,36
Sensibilización e interculturalidad	595.293,71 €	6,63	41,99
Fortalecimiento asociativo inmigrantes	505.673,00 €	5,63	47,62
Convivencia y diversidad	459.423,58 €	5,11	52,73
Espacios interculturales y derechos humano	398.502,48 €	4,44	57,17
Acogida e inclusión e intermediación	324.371,00 €	3,61	60,78
Intervención psicosocial	299.799,58 €	3,34	64,12
Autonomía mujer inmigrante	286.601,11 €	3,19	67,31
Inclusión social	280.102,90 €	3,12	70,43
Inclusión social inmigrantes	263.288,01 €	2,93	73,36
Transición menas jenas	228.071,00 €	2,54	75,90
Acogida residencial	226.491,00 €	2,52	78,42
Acompañamiento inmigrantes	224.314,93 €	2,50	80,92
Acogida municipal y convivencia	179.764,72 €	2,00	82,92
Atención sociosanitaria	144.505,00 €	1,61	84,53
Acogida residencial mujeres	136.931,00 €	1,52	86,05
Antirrumores	131.604,82 €	1,47	87,52
Habilidades laborales	126.845,00 €	1,41	88,93
Atención sociojurídica	99.126,00 €	1,10	90,03
Asilo	94.609,00 €	1,05	91,09
Inclusión social familias	93.338,17 €	1,04	92,13
Lógicas comunicativas	80.393,56 €	0,90	93,02
Acogida residencial jenas	72.992,00 €	0,81	93,83
Mentoría	70.769,48 €	0,79	94,62
Acogida e integración	68.142,93 €	0,76	95,38
Acogida residencial e inclusión	64.529,00 €	0,72	96,10
Acogida residencialial jenas y transicion me	58.155,00 €	0,65	96,75
Acompañamiento personas sin hogar	54.239,00 €	0,60	97,35
Habilidades comunicativas	48.259,90 €	0,54	97,89
Bizilagunak	37.419,45 €	0,42	98,30
Acompañamiento menores	30.266,94 €	0,34	98,64
Acogida mujeres	28.774,00 €	0,32	98,96
Acompañamiento socioeducativo	26.927,73 €	0,30	99,26
Habilidades personales	16.617,00 €	0,19	99,45
Euskera	16.158,99 €	0,18	99,63
Acogida asilo	15.593,00 €	0,17	99,80
Acogida e inclusión laboral	11.075,00 €	0,12	99,92
Respiro	5.062,00 €	0,06	99,98
Inclusión mujeres	1.941,00 €	0,02	100,00
	8.982.016,01 €	100,0	

Iturria: Egileak egina

Xehetasun handiagoz, jarraian, 4. taula aurkezten dugu. Bertan, aztertu ditugun berrogei gaiak jasotzen dira. Lortutako zenbatekoak handienetik txikienera antolatzen dira.

Bada epigrafe bat diruz lagundutako % 10 baino gehiago hartzen duena: teknikariek sortutako programa-laguntzak (% 10,36). Ondoren, hurbiletik datoz kulturarteko espazioak sortzea eta sustatzea (% 9,11) eta immigrazio-teknikariei laguntzea (% 8,45). Beste atal batzuekin batera, hala nola laneratzeko programak (% 7,44), sentsibilizazio- eta kulturartekotasun-programak (% 6,63), etorkinen elkarteak indartzea (% 5,63) eta bizikidetza- eta aniztasun-programak (% 5,11) dirulaguntzen erdia baino gehiago dira.

Hortik aurrera, beste hogeita hamar arlo tematiko bereizten dira, eta horien artean harrera-modalitateak eta laguntza-programak ere nabarmentzen dira.

Datu orokorrak ikusita, esan dezakegu 2018tik 2020ra bitartean emandako dirulaguntzen ezaugarri nagusiak honako hauek direla: gizarteratze handiagoa bultzatzea, kulturartekotasuna eta gizarte-bizikidetza sustatzea eta etorkinek dituzten oinarrizko premiei erantzutea.

Kulturarteko espazioena da dirulaguntza gehien jasotzen dituen bigarren arloa. Kategoria honetan elkarren artean oso desberdinak diren proiektuak daude, eta ez dute beti dirulaguntzen ebazpenean zehaztutako helburu eta ezaugarriarik, eta horrek zaildu egiten du horien edukia aztertzea. Pentsa dezakegu hirugarren sektoreko proiektu diruz lagunduak direla gehienak, eta horietan etorkinekin beraiekin zein bertako gizartearekin lan egiten dela, lehenengoen gizarteratzea indartzeko, espazio interaktiboen bidez.

Lanari dagokionez, gizarteratzearen eta laneratzearen kategoria da aztertutako urte guztietako lehentasunetako bat. Ekintza gutxi dira, baina oso kopuru garrantzitsua dira. Gizarteratzea eta laneratzea etorkinen esperientzian integratzeko zutabe erabakigarriak dira. Horri lotuta daude gizarte-kalteberatasuna eta bazterketa moderatua edo larria ekar dezaketen arazo asko. Kategoria horren barruan jarduera-arlo ugari daude, hala nola lan-baimenak eta legezko izapideak, tituluen homologazioa, ofizioen prestakuntza eta lan-orientazioa.

Era berean, aztertutako laguntzen barruan, zenbait kolektibo agertzen dira, behin eta berriz dirulaguntza propioak jasotzen dituztenak baina kantitate txikiagokoak. Kolektibo horien berezitasunekiko kezka gisa interpretatu behar da hori. Dirulaguntza bereziak ematean, honako hauek nabarmentzen dira: emakumeak, adingabeak eta familia-laguntzarik gabeko gazteak eta etxerik gabeko pertsonak. Aztertutako dirulaguntzen bidez diru-kopurua garrantzitsua ez dela dirudien arren, gogoratu behar da gizarte-ekintzako beste programa batzuek eta beste erakunde instituzional batzuek osatzen dituztela kolektibo horien premiak. Horrek erakusten du administrazioaren jarduera intersektionalaren babesa, euskal gizartean dauden premien arabera politikak ekitatiboak bultzatzeko. Kolektibo horien presentziak arreta berezia ematen die herritarren aniztasunei eta talde kalteberei.

Azaldu dugun bezala, egia esan, proiektuak bereizten dituzten lerroak ez dira beti argiak izaten, eta asko daude hainbat kategoriatan sailka daitezkeenak. Gainera, kategoriak elkarren artean oso lotuta daude. Dibertsitatea, kulturartekotasuna eta bizikidetzak ez daude sentsibilizaziotik oso urrun; harrera, laguntza eta gidaritza, esku-hartzea eta arreta ere taldeka daitezke. Azkenean, gizarte-laguntzako proiektu integratzaile baten hainbat adar dira, eta, beraz, ezarri ditugun mugak iragazkortzat hartu behar dira. Hala ere, dirulaguntza-lerro horien kategorizazioari esker, dirulaguntza-lerroen indarguneak eta ahulguneak aurki ditzakegu. Oro har, proiektuak eta ekintzak V. Planaren ildo nagusietara egokitzen dira, baina zalantzarik gabe komenigarria litzateke deialdiak koordinatzea eta ildoak argiago finkatzea, eta, aldi berean, ekintza-arloak oso porotsuak direla ohartzea.

3.4. SAILKAPENA

MAZek zuzenean egindako dirulaguntza eta transferentzia gehienak immigrazio-politikak garatzea ahalbidetzen duten egiturei eustera bideratzen dira, bai eta atzeritar jatorriko biztanleria finkatzeko lehen faseko bi ardatz nagusiak –harrera eta laguntza juridikoa– sendotzera ere. Osagarri gisa, zeharkako laguntzaren zati handi bat beste instantzia batzuetatik dator, eta, gainera, hirugarren sektore sozialeko erakundeek garatzen duten eta 271/2012 Dekretutik edo beste erakunde batzuetatik sustatzen den lanaren bitartez gauzatzen dira. Zeharkako laguntzak barne hartzen ditu, besteak beste, inklusioa, bizikidetzaren bultzada, gizarte-sentsibilizazioa eta -laguntza, eta abar.

Zuzeneko zein zeharkako laguntzetan jarraitutasun bikoitza dago, aurreko ataletan ikusi ahal izan dugunez: diruz lagundutako erakundeena eta diruz lagundutako proiektuena. Hau da, asko dira diru-kopuru eta helburu oso antzekoak dituzten erakunde berei urtero diruz lagundutako eskaerak. Koordinazio-lan bat egin behar da zuzendaritzen artean, eta zalantza orokor bat argitu: alde batetik, MAZek pertsonalki bere gain hartu edo garatu behar izatea gaur egun inguruko zuzendaritzen dirulaguntzen bidez bideratzen diren jarduerak, eta, beste alde batetik, beste dirulaguntza horietan bermatzea une bakoitzean indarrean dagoen zuzendaritzaren Planaren ildo estrategikoekin bat egiten dela.

Esan bezala, 2018tik 2020ra bitarteko aldiko erakunde garrantzitsuenen aurrekontuak, transferentziak eta dirulaguntzak bildu dira.

Datuak aztertu ahal izateko, diruz lagundutako proiektuaren helburuaren arabeko sailkapen integrala egin dugu, eta bederatzi ildo desberdin atera dira (ikus 1. taula). Hau da, iragazte bikoitza egin dugu, jakinda ez dela beti erraza diruz lagundutako proiektua ziurtasunez kokatzea, kategoria batean edo gehiagotan aldi berean koka daitekeelako. Hain eztabaidagarria ez den kategorian kokatzea erabaki dugu. Jakina, kategoria batean baino gehiagotan izaten da saski-naskia, baina zehaztasun gehiegizkoak ere ez liguke argitasun handiagorik ekarriko.

Aurreratzen dugu dirulaguntza generiko asko ematen zaizkiela onuradun posibleen artean etorkinak dauden proiektuei, nahiz eta dirulaguntza horiek kolektibo horri soilik edo

lehentasunez zuzenduta ez egon. Gure azterketarako, erabiltzaile nagusitzat etorkinen kolektiboa duten laguntzak soilik hautatu ditugu, hau da, kolektibo horrentzat bakarrik aurkezten direnak eta gizarteratzeko nolabaiteko lehentasuna eta gogoeta dutenak.

5. taula. Dirulaguntzen lerroen sailkapena

1. Inclusión	Laboral
	Social
	Educativa
2. Acogida	Residencial
	Municipal
3. Diversidad, interculturalidad y convivencia	
4. Acompañamiento y mentoría	Socioeducativo
	Social
5. Intervención y atención	Necesidades primarias
	Médico-psicológicas
	Residenciales
	Jurídicas
6. Sensibilización	Antirrumores
	Formación
7. Comunicación e idiomas	Medios de comunicación
	Redes comunicativas
	Euskera
8. Bizilagunak, Auzolan	
9. Conciliación	Respiro
	Autonomía mujeres
11. Otros	

Iturria: Egileak egina

Modu zehatzagoan:

1. Lehenengo kategoriak etorkinen kolektiboa gizarte hartzailean sartzeari bilatzen duten proiektu guztiak biltzen ditu, hainbat alderditan: lan-arlokoak (horien artean daude prestakuntza-programak, lan-arloko laguntza, orientazio-programak, etab.), hezkuntza-arlokoak (batez ere adingabeei zuzenduta ikastetxeetan edo eskolaz kanpokoetan) eta gizarte-arlokoak, nahiz eta proiektu horiek ez diren oso zehatzak eta gizabanakoei zein familia-unitatei buruzkoak izan daitezkeen.
2. Harrera: etorkinei harrera egiteko eta ingurune berrira egokitzeko esku-hartze goiztiarra. Hemen sartzen ditugu, halaber, udal-harrera deritzoten udalen programak.
3. Aniztasuna, kulturartekotasuna eta bizikidetzaren da kategorien artean osoena. Kulturarteko gune gisa sailkatu ditugu kulturartekotasunarekin, bizikidetzarekin eta aniztasunarekin zerikusia duten dirulaguntza guztiak. Dirulaguntza horien helburua da herritarren askotariko espazioak sortzea, tolerantziakoak eta elkar ulertzekoak, pertsonen eta kolektibo heterogeneoen arteko desberdintasuna eta elkarrekintza balioesteko. Kategoria honetan, etorkinen kolektiboei zein bertakoei eragiten dieten

proiektu desberdinak bildu ditugu, sareak ezarri edo hobetu eta kide guztiak euskal gizarte berrira hobeto egokitu daitezzen.

4. Laguntza eta gidaritzaren barruan, proiektu gehienek bakarrik dauden adingabe eta gazte atzerritarrak dituzte onuradun, eta ikastetxeekin edo gizarte-zentroekin egiten dira. Etorkina gizarteratzeko eta hartzeko helburu argia ere badute, baina erabiltzaileen espezifikotasuna dela eta, kategoria propio hori eratzea erabaki dugu.
5. Esku-hartzeak eta arretak errazago ikusten diren eta identifika daitezkeen premiak biltzen ditu, hala nola arreta medikoa, psikologikoa, juridikoa eta, bereziki, egoitzakoa, kategoria honetako programa gehienak bertan sartzen baitira.
6. Sentsibilizazioa da batez ere bertako biztanleengana bideratzen den kategoria bakarra, informazioa emateko, zalantzak argitzeko, gatazkak konpontzeko eta gero eta pluralagoa den euskal errealitate batean gerta daitezkeen estereotipo eta diskriminazioei aurre egiteko asmoz. Adin eta maila guztietako kolektiboek zuzenduta dago (eskolako espazioetan, lanekoetan, publikoetan... egiten dira jarduerak), eta sarrerako zein gizarte-sektoreko langileentzako prestakuntzak barne hartzen ditu. Kategoria honetan tokiko diagnostiko txikiak eta ikerketa-proiektuak ere sartu ditugu.
7. Komunikazioaren eta hizkuntzen barruan sartzen da auzo-komunikabideei, komunikabide parte-hartzaileei, sozialei eta pluralei dagokiena, bai eta hizkuntzei dagokiena ere (euskara ikastea, batez ere).
8. Bizilagunak izenekoak aisialdian partekatu ohi diren elkarrekintza-guneak hartzen ditu, hala nola otorduak, edo kulturen arteko beste elkarrekintza-gune batzuen sustapena. Mota horretako proiektu hain bereziak kategoria bereizi batean jaso ditugu, gure ustez kulturarteko elkarrekintza-guneak sortzeko duten balio eta garrantziagatik.
9. Azkenik, kontziliazioak haurtzaindegiak edo zaintzak barne hartzen ditu. Gaur egungo gizarte-egitura bereizgarriak direla eta, kategoria horretan emakumeak izan ohi dira erabiltzaile nagusiak.

Kategoria bakoitzaren mugaketak eta definizioak, beraz, aditzera eman lezake dirulaguntzak bederatzi ildo baztertzailatan antolatzen direla, baina berez ez da hala, ez baita proiektu bakoitza kategoria bakoitzean argi esleitzen, eta ez baitago horietan barne-homogeneotasun osoa; barne-aniztasuna izugarria da. Taldekatze hori aldeztu aurreko beste batetik dator, eta berrogei dirulaguntza-lerroekin, aztertu ditugun administrazioek emandako dirulaguntza guztiak biltzen ditu.

Taldearen oztopo deigarrienetako bat proiektu askoren zehaztasunik eza da. Horrek izugarri zaildu du haien kategorizazioa. Era berean, garrantzitsua da horien aniztasun zabala; izan ere, hasiera batean, agerian uzten du dirulaguntza-lerroetako helburuen koherentzia eta/edo argitasun falta posiblea, bai eta azterketa-eremuaren mugaketan nolabaiteko lausotasuna ere, aurkeztutako omnibus proiektuek adierazten duten bezala; izan ere, proiektu horiek, askotan, helburu ugari jorratzen dituzte, edo helburu bera baina hainbat publiko objektibori zuzenduta. Multidimentsionaltasun hori 271/2012 Dekretuak berak sustatzen du.


Gainera, programa batzuk urtez urte errepikatzen dira; izena edo egin beharreko ekintzak apenas aldatzen dira eta antzeko kopuruak jasotzen dituzte. Errepikapen hori ekintzaren garrantziak eragin dezake, denboran zehar iraunaraztea eskatzen duelarik. Era berean, berrikuntzarik egon ez dela eta baldintza aldakorretara egokitzean dela adieraz dezake.

Egoera hori birbideratzeko, diruz lagundu beharreko lerroak oso argiak izan behar dira, eta, horrekin batera, erakundearteko lidergo garbia behar da, unean uneko plan parte-hartzailea oinarri hartuta. Bultzada traktorea gainerako erakunde-mailekin eta immigrazioaren eguneroko kudeaketan esku hartzen duten gizarte-eragileekin koordinatuta dauden erakundeei dagokie, herritartasunaren eta kulturartekotasunaren dimentsioetan arreta berezia jarritz. Ildo estrategikoak mugatzea baterako gobernantza-araubideko zeregin komuna da.

Azkenik, adierazi behar da sailkapen edo tipologia horrek lehen hurbilketa errazteko helburu instrumentala duela, jakitun izanik batzuetan diruz lagundutako epigrafeak bereizten dituzten mugak porotsuak eta malguak direla; izan ere, diruz lagundutako proiektuek helburu ugari izaten dituzte, eta horietako bakoitzak aldi berean eragina izan dezake hainbat eremutan. Edonola ere, azterlan hau ez dugu egiten auditoria-motibazio batekin, baizik eta etorkizunean hobeto zehaztuta egongo diren garapenetara hurbiltzeko asmoz.

Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren zuzeneko dirulaguntzen atalean aztertu dugun udal-proiektuen immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren gaineko jardueretarako laguntzen 2. lerroari bederatzi dirulaguntza-mota edo -epigrafeko sailkapen honen logika aplikatuz gero, 3. grafikoa aurkezten dugun banaketa lortzen dugu.

3. grafikoa. Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren gaineko jardueretarako laguntzen banaketa esku-hartze ildoen arabera, udalerri eta mankomunitateetan, zifra erlatiboetan, 2018-2020 aldian.



Iturria: Egileak egin

Deialdi honen bidez Eusko Jaurlaritzari eskatutako proiektuei dagokienez (463, 2018tik 2020ra), honako atal hauek nabarmentzen dira: laguntza eta gidaritza (% 24), aniztasuna, kulturartekotasuna eta bizikidetza (% 17,3), sensibilizazioa (% 16,4) eta gizarteratzea (% 16). Ondoren, garrantzi txikiagoko beste batzuk datoz, “beste batzuk” deitu dugun kategoria horretan taldekatuta.

Ariketa bera egin dugu zeharkako dirulaguntzen eta/edo dirulaguntza osagarrien atalean diruz lagundutako eta aztertutako proiektuekin. Hala, proiektu eta esku-hartze guztiak aurrez ezarri ditugun bederatzi kategoria handietan bildu ditugu, eta horietan, aldi berean, berrogei arlo espezifikoago sartu ditugu. Beste behin ere, argi utzi nahi dugu esku hartzeko eta dirulaguntzak emateko ildo nagusiak deskubritzeko ariketa bat dela, nahiz eta une batez zehaztasun pixka bat galdu.

4. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Lortutako eta aurrez iruzkindutako datu guztien artean, hau nabarmentzea gustatuko litzauguke:

1. *2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planak* orokorrean balorazio positiboa du inplikaturako pertsonen artean. Sentsazio orokorra honako hau da: harekiko kritikak dauden arren, bere lana egin duela atzerriko immigrazioaren fenomeno eta gero eta handiagoa den aniztasuna ekintza politikoaren erdigunean birkokatzen. Taldeetako parte-hartzaileek adierazi dute, oro har, V. Planaren helburuak zuzenak zirela, eta plana behar bezala planifikatu eta garatu zela.

Hala ere, kritika nagusietako batzuk planaren konplexutasunean eta eraginkortasunean oinarritzen dira, pertsona batzuek zertxobait zaila izan dela argudiatu baitute. Era berean, adierazten denez, bere garapena pixka bat gorabeheratsua izan da, gauza batzuk egin dira, beste batzuk ez, beste batzuk bertan behera utzi dira... Covid-19aren pandemiak ekarri zituen zailtasunetatik haratago.

VI. Plana egiteko, kontsultatutako eragileek ekintza batzuen formulazio desberdina nabarmendu dute: batzuk oso zehatzak diren bitartean, beste batzuk abstraktu samarrak dira. VI. Planari begira, gomendagarria litzateke, ahal den neurrian, idazketa edo formulazio homogeneoagoa egitea.

2. *2018-2020 aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planak* biltzen dituen 102 ekintzei erreparatu, honako hau esan dezakegu:

- a) horietatik hogeita hamabost guztiz landu eta gauzatu direla;
- b) beste hogeita hiruri ekin zaiela baina hein batean soilik gauzatu direla;
- c) gainerako hogeita bederatziei ezin izan zaiela ekin;
- d) eta hamabost egitea ezetsi dela.

Plan osoa behar bezala gauzatzeko funtsezkoak diren ekintza estrategiko eta antolamenduzko gehienak jorratu eta garatu direla kontuan hartuta, pentsa dezakegu *2018-2020 (2021) aldian Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana* bere potentzialaren % 60-65 inguruan gauzatu dela.

3. Bestalde, V. Planaren lehentasunen artean, atzerriko immigrazioaren kudeaketan eta gero eta handiagoa den gizarte-aniztasunean Eusko Jaurlaritzaren lidergo-rola berreskuratzea aipatzen zen. Horregatik, nabarmendu da, oso plan laburra izan arren, beste norabide bat lortu dela, eta horri esker sakonago landu daitekeela migrazioetarako Euskal Itun Sozialaren hedapena. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza espezifiko berria edukitzeak immigrazioaren arlo guztietan lan eraginkorragoa eta efizienteagoa egiten lagun dezake, aterki instituzional garrantzitsua eta apustu politiko argia baita.

Asiloa ere biltzen duen Immigrazioko Zuzendaritza espezifiko bat berreskuratzea lortu den arren, sektorean lan egiten duten gizarte-eragile guztiek Eusko Jaurlaritzaren protagonismo handiagoa eskatzen jarraitzen dute. Gai horretan sakonduko du VI. Planak, eta erakundeen eta

sailen arteko koordinazioan eta kulturalki askotarikoak diren pertsona, talde eta kolektiboen kudeaketan lidergoa indartzeko ekintzak proposatuko ditu.

Sektoreak eragileen arteko elkarreragin handiagoa, koordinazio handiagoa, informazio-truke handiagoa eta elkarlan handiagoa eskatzen ditu. VI. Planak erronka horri erantzun nahi dio.

Koordinazio handiagoa eman behar da maila guztietan, immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren esparruan lan egiten dugun eragile, instantzia eta erakunde publiko eta pribatuen sistema indartuz: Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Biltzen, Ikuspegi, Begirune Fundazioa, Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia, Aldundiak, Udalak, Hizkuntza Politikako Saila, Hirugarren Sektoreko Sarea, Aholku-Sarea, Eraberean Sarea, Immigrazioaren aldeko Foroa, ZAS! Sarea, elkartegintza (auzokideen, enpresarien, kulturgileen, kirolarien...elkartek), enpresak, sindikatuak, unibertsitateak, erlijio-kongregazioak, komunikabideak (bereziki EITB) eta abar.

4. Argitara ematen den beste gaietako bat etorkizuneko Harrera Lege baten beharra da, aniztasuna kulturartean kudeatzeko euskal eredu garatzeko eta sendotzeko erreferentzia-esparrua izango dena. V. Planak Euskal Harrera Eredu bat definitzeko eta finkatzeko oinarriak jarri ditu, eredu hori gauzatzeko ideiak eta ekintzak proposatzean. Gizarte-eragileek adierazi dute asiloa VI. Planean sartu behar dela, eta Euskal Harrera Ereduan ere jaso behar dela. Gainera, inplikaturako eragileek Euskal Harrera Ereduaren proba piloturen bat udalerrien lagin batekin hasteko ideia proposatu dute, ondoren, ebaluatu ostean, EAE osorako eredu bat proposatu ahal izateko.
5. Era berean, garrantziko beste elementu bat planteatzen da: *Migraziorako Euskal Itun Sozialaren* hedapena, eta hura finkatzeko beharra, jarduteko mugak ezarriko dituen esparru etiko gisa. Kontsultatutako eragileek adierazi dute iritzi ona dutela hari buruz, eta itxaropen handiak dituztela haren hedapenean, baina zalantzak daudela udalen, erakundeen eta, oro har, gizarte-eragileen benetako inplikazioari buruz.
6. Era berean, V. Planak orainerako eta etorkizunerako funtsezkoa izan behar duen beste elementu bat finkatu du VI. Planean eta EAEko migrazioen arloko ondorengo plan eta estrategietan: Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Eredua. Horren kontzeptuzko oinarria kulturartekotasuna izan behar da, hau da, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan, kultura-praktika desberdinak dituzten beste pertsona batzuekiko errespetuaren printzipioan eta kulturalki askotarikoak diren pertsona, talde eta kolektiboen arteko elkarreragin positiboa sustatzearen printzipioan oinarritua.

Euskal Eredu Publiko bat partekatu behar dugu gero eta handiagoa den aniztasun soziokulturala kudeatzeko, aniztasuna kudeatzeko eredu komun bat ezarriko duena erakundeentzat eta euskal gizartearentzat.

Eredu hori, gainera, kulturartekotasunetik abiatu behar da, gizarte eta kultura aldetik askotarikoak diren taldeen kudeaketa demokratiko, justu, ekitatibo eta parekiderako aukera ezin hobea den aldetik. Ideal horri dagokionez, eragileek adierazi dute arlo politikorako atal bat dagoela planean, baina etorkizuneko planean kulturartekotasuna nola integratuko den jaso behar dela.

7. Bestalde, V. Planak barne hartzen dituen eremu batzuetan esku hartzeko edo eragiteko gaitasun eskasa planteatzen da: zehazki, enpleguan eta hezkuntzan zaila izan da eragitea, baina Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eskumen edo erantzukizunen oinarri ez diren beste eremu batzuetan ere zaila izan da eragina izatea. Horregatik, kontsultatutako eragileek Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarako lehentasunezko sail osagarriekin benetako koordinazio-

harremanak ezartzeko beharra planteatu dute: Lanbide, Hezkuntza Saila, Hizkuntza Politikako Saila... Arestian aipatutako hirugarren puntuan adierazi dugun bezala landu daiteke hori, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren zeregina finkatuta eta definituta, bai eta migrazioaren fenomenoarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin duen harremana eta koordinazioa sustatuta ere.

8. Bestalde, V. Planak iraun duen bitartean, euskal gizarteak aniztasunaren alde egin duela nabarmendu da, eta laguntza hori administrazioetan islatu dela; izan ere, batzuetan, bere eginbeharra gainditu du, eta premia-egoerei irtenbidea ematea bilatu du, V. Planaren helburuak zenbait alderditan gaindituz, planean jasotzen ez ziren alderdiei heldu baitie.

Aipatu den bezala, sektoreko eragileek uste dute immigrazioa kudeatzeko elkarren segidako estrategiak gauzatzeak fruituak ematen dituela gizarte-mailan, nahiz eta esparru horretan egindako aurrerapenak ez diren erakundeen estrategien ondorio bakarrik (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, beste erakunde batzuk); aitzitik, merezimendua euskal gizartearekin partekatu behar da (nabarmena da immigrazioarekiko eta aniztasun soziokulturalarekiko alde aurreko nahiz uneko jarrera), baita aniztasunaren alde lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeekin ere. Horren guztiaren ondorioz, sektoreko eragileek uste dute aurrerapauso handiak ematen ari direla euskal gizarte osoak immigrazioa eta aniztasun soziokulturala gehiago onartzeko bidean. Jarrera horrekin bat datoz euskal administrazioak ere, gizartearen parte diren aldetik, eta, hala, jardunbide hobeak garatu dituzte V. Planak aipatzen duen azken aldi honetan.

Kontsultatutako eragileek sektorean lan egiten duten pertsonen, euskal administrazio publikoko profesionalen eta hirugarren sektoreko erakundeen jarrera eta portaera nabarmendu dituzte, urte hauetan arlo desberdinetan beren zereginaren gainetik lan egin baitute, Planean islatzen denetik haratago ere joan direla baieztatuz.

Laburbilduz, sektoreak hiru alderdi nabarmentzen ditu: alde batetik, euskal gizartearen erantzun zibiko handia, zeina agerian garatzen baita atzeritar jatorriko etorkinekiko gizarte-sentsibilizazio handiagoan eta euskal biztanleriaren inplikazio handiagoan, harreraren, laguntzan eta, oro har, migrazioekiko eta horien gizarte-arazoei konpromisoan; bestetik, hirugarren sektoreko erakundeek egindako lana, V. Planean jasotzen zena baino haratago joan dena, planean jasotzen ez ziren arazoei helduz, hala nola iragaitzako migrazioari, eta erakunde eta eragile desberdinen arteko lankidetzaren harremanak ezarri, herritarrak babestu eta asetzeko sareak sortuz, etab.; eta, bestalde, etorkinen harrera hobetzera, euskal gizartearen bizikidetzaren inklusioa sustatzera eta Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Eredu Publikoa finkatzera bideratutako ekimen instituzionalak ere nabarmentzen dira (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak).

9. Azkenik, gai oso zehatz batzuk nabarmendu behar dira, sektoreko eragileen VI. Plana egiteko garaian kontuan hartu beharko liratekeenak:
 - EAEko bi hizkuntza ofizialen ikaskuntza mahai gainean jartzea.
 - COVID-19aren pandemiaren berehalako ondorioak kontuan izatea, bereziki txertoak eskuratzeko bideei, eten digitalaren igoerari eta abarri dagokienez.
 - Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren zuzeneko erantzukizuna ez diren arloetako neurri eta ekintzetan jarduteko edo eragiteko gaitasuna hobetzea, batez ere hezkuntzan, enpleguan eta euskararen ezagutzean eta erabileran.

